





MONDRAGON

GIZATASUNA  
LANEAN

Finantzak  
Industria  
Banaketa  
Ezagitza

2011 | URTEKO  
TXOSTENA





## MONDRAGON: ADN kooperatiboa

MONDRAGON Korporazioa Espainiako enpresa talde nagusietakoa da gaur egun. 83.000 langilerekin baino gehiagorekin, 15.000 milioi euro baino gehiagoko sarrerekin eta 281 enpresa eta kooperatibarekin, mundu mailan jarduera kooperatiboaren erreferentzia nagusietakoa da. Industria, finantza eta banaketaren sektoreetan dago presente, eta ezagutzaren eta hezkuntzaren eremuan ere ekimen garrantzitsuak garatzen ditu.

Azken boladan izan duen bilakaeraren ezaugarri berezietako bi dira bere jarduerak nazioartekotzea eta berrikuntzaren aldeko orientazioa lehenestea. MONDRAGONek, atzerrian lanean 15.000 pertsona baino gehiago dituelarik, 41 herrialdetan ditu filial produktiboak eta ordezkaritza korporatiboak, eta 150 herrialdetan baino gehiagotan saltzen du. Jarrera berritzailea du, 14 zentro teknologikoren bitartez bideratzen dena, eskusiboki I+Gra dedikatzen diren 822 pertsonaz osatutako talde batekin.

MONDRAGON Korporazioa enpresa proiektu lehiakorra eta arrakastatsua da, bere historiaren 56 urteetan mundu mailan lankidetzaz bidezko lanaren erreferentzia bihurtu dena. Halaber, MONDRAGONen eremuan pertsonak dira enpresaren benetako protagonistak, eta konpromisoa, erantzukizun soziala, parte hartzea eta gardentasuna bere ADN kooperatiboaren parte dira.

## KUDEAKETAREN BIKAINASUNARI BURUZKO ERREKONozIMENDUAK

(\*) 2011ko abenduaren 31ko datuak

**Europako EFQM 1. Sariaren Finalista**, Fagor Etxetresna Elektrokoak (Egosceta).

**Europako Ingurumeneko 1. Saria**, Orkli.

**8 Urrezko Q**: Euskadiko Kutxa, Copreci, Fagor Industriala, Fagor Etxetresna Txikiak, Eroskiko Produktu Freskoen Zornotzako Plataforma, Mondragon Lingua, Politeknika Txorierrri Ikastetxea eta Lagun Aro Aseguruak.

**19 Zilarrezko Q**: Auzo Lagun, Eroski Zornotza, Elorrio, Agurain eta Zorrotzako Plataformak, Enpresagintza, Fagor Elektronika, Fagor Etxetresna Elektrokoak Konfort, Fagor Etxetresna Elektrokoak Garbiketa, Fagor Etxetresna Elektrokoak Altzariak, Geysler-Gastech, Lea Artibai Ikastetxea, Mondragon Goi Eskola Politeknikoa, Orkli, Soraluze, Ulma Packaging, Ulma Piping, Ulma Handling, Eroski Bidaia eta Domusa.

**110 ISO 9000 ziurtagiri.**

**59 ISO 14001 Ingurumen ziurtagiri.**

**6 Ekodiseinu ziurtagiri**: Fagor Etxetresna Elektrokoak, Geysler-Gastech, Orona, Eredu, Soraluze eta LKS Ingeniaritza.

**29 OHSAS 18000 ziurtagiri**, Laneko Arriskuen Prebentziorako Sistemiei buruz.

**Erantzukizuna Sozialaren SA 8000 ziurtagiri bat**, Eroski.

**Familiarekiko Enpresa Arduratsuaren 1 ziurtagiri bat**, LKS.



## LEHENDAKARIAREN MEZUA

2010ean estatuan eta Europan itxuraz behintzat susperraldia hasiko zela zirudien arren, 2011ren hasieran berriro ere motelaldiaren zantzuak agertu ziren, eta horiek berretsi egin dira gero, Espainiako ekonomiak urtearen azken hiruhilekoan izandako atzeraldiarekin eta Europar Batasuneko herrialde gehienetan ere izandako atzeraldi orokorrarekin.

Kontrako testuinguru ekonomiko bihurri horretan, eta segurtasun falta, ziurgabetasun eta konfiantza falta orokorreko giro batean ekin diogu 2011ko ekitaldiaren gestioaren garapenari. Ekitaldian, ingurumari horiek gorabehera, indar berria eman diogu nazioartekotzeari, merkatu berrietan sartu gara, berrikuntza sustatu dugu eta gure negozioetako batzuk birkokatu ditugu. Halaber, aurreko urteetako neurri bereziekin jarraitu dugu, gainbehera ekonomiko berriari aurre egin eta egoki erantzuteko: birkokapen sozietarioak, erosketetan aurrezteak edo soldata atxikitzea, besteak beste.

2011ko ekitaldian, ikuspegi Kooperatibotik alderdi hauek nabarmentzen dira:

- MONDRAGONeko Politika Sozioenpresariala lantzea eta onartzea, 2013-2016 aldirako Korporazio osoaren gida eta norabide estrategiko gisa.

- Negozioak nazioartera zabaltzeko egindako aurrerapen handia.
- Berrikuntza eta sustapen politikak areagotzea, gure etorkizuna bermatzeko eta merkatu lehiakorrenetan presente egoteko ezinbesteko baldintza gisa.

### 2013-2016 Politika Sozioenpresariala:

2010ean hasitako ponentziaren hausnarketa eta lanketaren ondoren, 2011ko iraileko Kongresuan aho batez edukiak onartu ziren, Erronka moduan –enpresa sarearen eraldaketa–, bere 5 Estrategiekin –Dimentsionamendua, Nazioartekotzea, Berrikuntza, Elkarrekiko lankidetzeta eta Konpromisoa eta Nortasun Kooperatiboa– eta dagozkien jarraibideekin; horiek markatuko beharko digute datozen urteetan egin beharreko bidea.

**Nazioartekotzea.** Industria Arloan geneukan konbentzimendua berretsi da, hau da, nazioartekotze indizerik handiena duten enpresek hazteko palanka handia dutela, uzkuratzen ari diren merkatu lokalekiko gehiegizko menpekotasuna izatetik datozen arriskuak arindu, neutralizatu eta dibertsifikatzeko eta, ondorioz, gure ingurunean lanpostuak hobeto defendatzeko eta balio berria emateko. Horrenbestez, Industria Arloan, nazioarteko salmentak salmenta totalekin

alderatuta % 67raino igo dira, 4,1 puntu gehiago 2010arekin alderatuta, eta 2011ko ekitaldiaren amaieran 94 ezarpen produktibo zeuden atzerrian, atzerriko 15.162 langilerekin.

**Berrikuntza.** Berrikuntzak etorkizuneko negozio berriak sortzeko ezinbesteko palanka izaten jarraitzen du. Ildo horretan, MONDRAGONek 165 milioi euro bideratu zituen I+G+D; Industria Arloak balio erantsiari buruzko % 9,1eko aurrekontua jarri zuen; asmakuntzako 508 patente familia ditugu, eta I+G+D nazioarteko 39 proiektutan parte hartu genuen. Eta bereziki aipagarria den datu bat: 2011n Industria Arloaren salmenten % 20,5 bost urte lehenago ez zeuden produktu eta zerbitzu berriak izan ziren.

Hori guztia **Eredu Kooperatibo** baten esparruan, Printzipioak, Balioak eta Gestio Eredua partekatuz; eredu hori berriro ere erakusten ari da mekanismo lehiakor bereizgarriak dituela garai zailak gainditzeko, eta mekanismo horien bidez interes enpresarialak eta sozialak uztartzen ditugu, aldi berean jabe eta langile izatearekin bat eginda, oreka dinamikoan, betiere aberastasuna eta enplegua sortu nahi duen proiektu sozioenpresarialaren zerbitzura.

José M<sup>a</sup> Aldecoa

# aurkibidea



OINARRIZKO DATUAK



ARLOAK: FINANTZA, INDUSTRIA,  
BANAKETA ETA EZAGUTZA

1\_1 Finantza Arloa

Euskadiko Kutxa  
Lagun-Aro, EPSV  
Lagun Aro Aseguruak

1\_2 Industria Arloa

Kontsumo ondasunak  
Ekipo ondasunak  
Industri osagaiak  
Eraikuntza  
Enpresa zerbitzuak

1\_3 Banaketa Arloa

1\_4 Ezagutza Arloa



EGOERA ORRI EKONOMIKOAK  
ETA ONDAREARENAK



ANTOLAMENDUAREN EGITURA.  
ERAKUNDE SOZIALAK ETA  
ZUZENDARITZAKOAK



ENPRESEN ZERRENDA

## 0INARRIZKO DATUAK

milioi euro

Enpresa garapena	2010	2011	Ald. %
AKTIBOA GUZTIRA	33.099	32.454	-1,9
BALIABIDE propioak	4.287	3.999	-6,7
EMAITZA bateratuak	178	125	-29,8
EUSKADIKO KUTXAko bezeroen GORDAILUAK	18.629	18.209	-2,2
LAGUN-AROKO ONDARE FONDOA	4.478	4.532	1,2
SARRERAK guztira	14.755	14.832	0,5
SALMENTAK guztira (Industria eta Banaketa)	13.989	13.969	-0,1
INBERTSIO garbiak	101	194	92

Enplegua	2010	2011	Ald. %
Batez besteko LANPOSTUAK	83.859	83.569	-0,3
Industria Arloko kooperatibetako BAZKIDEEN % plantillarekiko	85,9	82	-4,5
Kooperatibetako plantilletako EMAKUMEEN %	43,7	43,6	-0,2
Industria Arloko intzidentzi edo ISTRIPU tasa	37,9	35,9	-5,2



Parte hartzea	2010	2011	Ald. %
---------------	------	------	--------

Bazkide langileen KAPITAL SOZIALA	2.204	1.816	-17,6
Gobernu Organoetan dauden BAZKIDE LANGILEEN kopurua	892	872	-2,2

Elkartasuna	2010	2011	Ald. %
-------------	------	------	--------

Eduki sozialeko jardueretara zuzendutako BALIABIDEAK	16,7	18,4	10,2
Hezkuntza zentroetako IKASLE kopurua	9.282	9.304	0,2

Ingurumen kudeaketa arduratsua	2010	2011	Ald. %
-----------------------------------	------	------	--------

Indarrean dauden ISO 14000 ziurtagiri kopurua	54	59	9,2
EKODISEINUKO ziurtagiri kopurua	6	6	0

Etorkizuneko apustua	2010	2011	Ald. %
----------------------	------	------	--------

I+Gra zuzendutako baliabi- deen % Industria Arloaren balio erantsiarekiko	8,1	9,1	12,3
ZENTRO TEKNOLOGIKO eta I+G unitateen kopurua	14	14	0
Ikerlari kopurua guztira	1.293	1.885	45,7

## MONDRAGON

# 281

ENTITATE

111

KOOPERATIBA

143

SOZIEKATE  
FILIAL

5

FUNDAZIO

1

MUTUA

9

ESTALDURA  
EMATEKO ENTITATE

12

NAZIOARTEKO  
ZERBITZU



9.304





14



94



### ARLOAK

- FINANTZA 1\_1
- INDUSTRIA 1\_2
- BANAKETA 1\_3
- EZAGUTZA 1\_4

1



### FINANTZA



2011ko ekitaldia zaila izan da finantza sektorearentzat, kontrako faktore asko elkartu baitira, hala nola zenbait interes tasak minimo historikoetan mantentzea eta berandutze mailak handia izaten jarraitzea, eta horrek, ondorioz, zuzkidurak ekarri ditu, emaitzen kontuak zamatu dituztenak; gainera, aurrezkiak atzitzeko lehia oso erasokorra izan da, eta horrek finantza kostuak eta marjinekiko presioa handitzea dakar.

Horri guztiari beste bi egoera berezi gehitu behar zaizkio, hau da, sektorearen birmoldaketa, bereziki aurrezki kutxen segmentuan, kontzentrazio handia gertatzen ari baita, eta kapitalari buruzko eskakizunak handitzea, finantza erakundeen kaudimena indartzeko helburuarekin, batez ere higiezinaren gaineko arriskua konpentsatzeko.

#### **MONDRAGONeko Finantza Arloak**

eszenatoki nahasi horretan mugitu behar izan du, kontrako faktoreei aurre eginez, Korporazioa osatzen duten negozioen eraginkortasuna hobetzera zuzendutako gestio neurrietan oinarrituta.

**Banku jardueraren** aldagai nagusiek, hala nola kreditu inbertsioak eta gordailuen atzipenak, bilakaera maskal samarra izan dute, ekonomiaren pulsu motelarekin bat eginda, eta hori familien zein enpresen errentetan islatu da, eta kontrako eragina izan du aurrezteko ahalmenean eta kreditu eskaera kaudimendunean.

Balioen merkatuei eta Arlo honetako erakundeen **inbertsioetan** duten eraginari dagokionez, bilakaera desberdina izan dute urtean zehar, izan ere AEBetan eta Europako Erdialdeko herrialdeetan aldeko bilakaera izan dute, bai errenta finkoan bai aldakorrean, baina Europako periferiako herrialdeetan, Espainia barne, prezioak jaitsi egin ziren, herrialdeen arriskua handitu zen heinean.

Testuinguru horretan, lortutako errendimendu garbiek Arlo honetako sozietateen behar aktuariak aurre egitea ahalbidetu dute –epe luzerako betebeharrei erantzuteko behar besteko hornidura teknikoak dituzte–, eta gainera ondareak hobetu dira eta, ondorioz, baita kaudimena ere.

**Aseguruen jardueran** sare komertzialak indartzen jarraitu dugu, eta “sare sozial” moduan ezagutzen den egungo fenomeno horretan duten presentzia handitu da. Horrenbestez, oinarri berriak ezarri dira modu errentagarrian eta jarraituan hazten jarraitzeko eta helburu estrategikoaren garapenean aurrera egiteko.

## EUSKADIKO KUTXA

Krisi ekonomikoak eta finantzarioak hainbeste markatu duten 2011. urteko ekitaldian Euskadiko Kutxak irmo erantzun die agertu zaizkion erronkei, eta indartuta atera da kaudimenari buruz duen kokapenean, nahikoa likidez maila mantenduz.

2011ko abenduaren 31ko egoeraren **balantzean**, aktibo totalak 20.840 milioi euro ziren, aurreko ekitaldiaren itxierako maila berean mantenduz (% 0,8 gutxiago).

**Bezeroen gordailu totalak**, urtearen amaieran, 18.209 milioi euro ziren, termino erlatiboetan % 2,2 uzkurtu eta gero. Eragin mugatu horrek ere meritu handiagoa dauka, pasiboaren inguruan sektorean lehertu zen gerra kontuan hartzen bada, Euskadiko Kutxak ongi samar saihestu ahal izan duena, likidezian duen egoera onari esker.

Zehazki, Euskadiko Kutxaren negozioaren zati nagusia diren bezero partikularren gordailuak % 2,4 hazi dira. Bereziki nabarmentzen dira erretirorako, BGAE-etarako eta Pentsio Planetarako epe luzerako aurrezkien saldoak, 73,4 milioi euroan handitu baitira, % 6,9.

**Kreditu inbertsioari** dagokionez, berriz, balorazioagatik egindako doikuntzak alde batera utzita –estalduretarako eratutako

zenbatekoak dira batez ere–, urtearen amaieran 15.365 milioi euro zeuden, 2010ean baino % 5,9 gutxiago; hainbat uzkurdura gertatu dira bai enpresen segmentuan bai partikularrean, azken horretan higiezin merkatua moteldu egin delako eta, ondorioz, hipoteka maileguen eskaera ere murriztu egin delako.

Jarduera ekonomikoaren eta enpleguaren egoera okertzearen ondorioz berantasun indizea handitu egin zen, % 4,77an kokatzeraino, baina maila hori jasangarria da, eta aldeko kokapena erakusten du sektorearen batez bestekoarekin alderatzen bada.

**Fondo propioak** ekitaldiaren amaieran 1.571 euroan zeuden eta, ondorioz, kaudimen koefiziente, Core Capitalaren kontzeptu zehatzean, % 12,3an kokatu zen, sektore finantzarioko altuenetakoan.

**Bilakaera ekonomikoari** erreparatuz gero, aurreko ekitaldia oso-oso konplexua izan da errentagarritasunaren ikuspegitik, batik bat pasiboaren kostuen gainean egon den presioaren intentsitateagatik, likidezia txikiko eta aurreztaileen dirua atzitzeko lehiakortasunik handieneko ingurune batean. Hala eta guztiz ere, interesen marjina zein marjina gordina aurreko urtekoen antzeko mailetan mantendu dira, negozio errepikariaren portaera onari esker, zuzkidura aurreko emaitzak 218 milioi euro izatea ahalbidetu baitu.

Dena dela, Euskadiko Kutxak hornidura zuzkitzeko egindako ahalegin handiaren ondorioz amaierako **Emaitza Garbia** 19,4 milioi euro izan da.

**Efizientzi ratioa**, hau da, utsiapen kostuen eta erakundeak lortutako sarreren arteko erlazioa, hobetu egin da 2011n, bankuen merkatuak izan dituen arazoak gorabehera, eta % 40,64an kokatu da, alegia, oso maila onean neurri handiagoko beste kutxa batzuekin alderatuta.

Ekitaldiko beste datu esanguratsu bat 65 milioi euroko **inbertsioa** da, Lagun Aro SA eta Lagun Aro Vida SA aseguru konpainien kapitalaren % 100 lortzeko, Bancaseguros estrategia berri integratuago bat hedatzeko, bertan espezializazioa eta bezeroarenganako orientazio bakarra nagusituko dira finantzen eta aseguruaren negozioetarako.

Nazioarteari dagokionez, Euskadiko Kutxak atzerriari lotutako eragiketarako egiten ditu, mundu osoan 1.000 korrespontsal baino gehiagoko sare baten bidez, eta 2011n nazioarteko transakzioei lotutako negozioaren zenbatekoa 3.000 milioi izan zen.

## 1\_1 FINANTZA ARLOA

### LAGUN-ARO, EPSV

Lagun-Aroko mutualisten kolektiboa gehienbat MONDRAGON osatzen duten kooperatibetako bazkideekin osatuta dago. Lagun-Aroren jarduera, nagusiki, kolektibo horren eta beraren senide onuradunen babes soziala da, Sistema Publikoaren antzeko irismenarekin.

2011ko abenduaren 31n, **mutualisten kolektibo** horretan 29.540 pertsona zeuden, 143 kooperatibatakoak, % 1,4ko urteko gutxitze garbiarekin.

Erretiro, Alarguntasun eta Aldi Baterako Ezintasunerako prestazioen estaldura denbora tarte handietan eta mutualista kopuru handi batentzat egin behar da, eta pentsio horiek bermatuko dituzten hornidurak eratuz finantzatzeko dira.

2011ko ekitaldiaren amaieran, **pentsiodunen** kopurua 10.334 pertsona zen, 2010eko itxieran baino 550 gehiago, eta kontzeptu horiengatik ordaindutako zenbatekoa guztira 124,3 milioi euro izan da, aurreko urtean baino % 9,3 gehiago.

Kapitalizazioko prestazio horiek **Ondare Fondo** baten bidez bermatzen dira, eta bertan, 2011ren itxieran, 4.532 milioi euro zeuden, errendimenduak eta ekitaldiaren itxieran erregistratutako balioen doikuntzak aplikatu eta gero. Aurreko urtearekin alderatuta, Ondare Fondoa 54 milioi

euroekin handitu da, hau da, % 1,2ko hazkunde portzentuala izan du.

Aurreko ekitaldian finantza merkatuetan egon den aldakortasun handiak eragina izan du inbertsio finantzarioen kudeaketan lortutako errendimenduan. Edonola ere, egondako zailtasun guztiak egonda ere, lortutako emaitzak positibotzat har daitezke, urtearen amaierako errentagarritasuna positiboa izan den heinean (% 1,41), eta **Kaudimen Marjina** ere mantendu egin da (% 4,54), legez ezarritako gutxieneko % 4,00aren gainetik.

**Banaketako prestazioen** zenbatekoa, hau da, epe laburrerako prestazioak estaltzen dituztenena, 75,3 milioi euro izan da 2011. urtean, eta bereziki arlo hauetara zuzendu dira:

- Aldi Baterako Ezintasuna, 34,7 milioi euro (guztizkoaren % 46).
- Enplegurako laguntza, 21,5 milioi euro (guztizkoaren % 29).
- Osasun Laguntza, 13,5 milioi euro (guztizkoaren % 18).

Aldi Baterako Ezintasunaren prestazioa, aurreko bi urteetan ez bezala, jaitsi egin da 2011n, absentismo tasaren bilakaerak beherantz egin duen heinean, 2010ean % 5,76 izatetik 2011ko itxieran % 5,37 izan baita. Horren ondorioz, ekitaldian 0,1 milioi euroko superabit txiki bat egon da eta, hori 2010etik zetorren geldikinari

gehitzen bazaio, emaitza moduan, prestazioaren saldoa -1,6 milioi euro dela ateratzen da.

Enplegurako Laguntzaren prestazioari dagokionez, berriz, 2011n egindako gastua 21,5 milioi eurora iritsi da.

Gastu hori, aurreikusita zegoen bezala, ekitaldiko sarrera maila baino handiagoa izan da, eta urtean 7,6 milioi euroko defizita eragin du. Edonola ere, 41 milioi euroko saldo metatua mantentzen jarraitzen da, datozen ekitaldiei aurre egiteko.

Urtean zehar behin betiko izaera duten 225 irtenbide eman dira soberakin ziren mutualistentzat, eta gehien erabili diren modalitateak izan dira behin betiko birkokapenak (121) eta aurretiazko erretiroa (84).

## LAGUN ARO ASEGURUAK

2011. urtearen ezaugarria ibilgailuen matrikulazioen eta etxebizitzaren salmenten erabateko jaitsiera izan da, baina, hala eta guztiz ere, Lagun Aro Aseguruen negozioak pixka bat hobetu ditu bere emaitzak 2010arekiko, gastua kontrolatzeari, istripuak murrizteari eta aseguratzailean konfiantza izaten jarraitzen duten bere **375.000 bezeroak** leialtzeari esker. Fakturazioa guztira 211,1 milioi euro izan zen, 2010ean baino % 6,75 gehiago. Zifra oso horretatik, 127,2 milioi Seguros Lagun Aro, SAri dagozkio, eta 83,9 milioi Seguros Lagun Aro Vida SAri.

Atalka aztertuta, primetan % 1,8 hazi zen, eta Etxeko polizetan % 1,2; Autoetan % 4,2 jaitsi zen primetan eta % 1,1 hazi polizetan; eta, azkenik, Bizitza Arriskuan % 3,6 hazi zen primetan eta % 0,28 polizetan. Funtsean, datu horiek guztiek sektorearen tonika orokorrari jarraitzen diote.

Egoera zaila izanik ere, konpainiak bere produktu eta zerbitzuak berritzen jarraitu du, helburu argi hauek lortze aldera: eraginkortasuna eta errentagarritasuna. **Berrikuntzaren** aldeko apustu horrek 2011n hainbat errekonozimendu lortzera eramán du. Lagun Aro Aseguruek Ederne Pasaban babesteko martxan jarri zuten komunikazio eta marketin kanpainak komunikazio ez konbentzionaleko kanpainarik onenaren saria eramán

zuen aseguruaren sektoreko Marketin eta Komunikazio Sariaren lehenengo edizioan. Bezeroen arretarako duen zerbitzua ere Contact Center sarietan izan zuen aitortza. Zehazki, multikanal zerbitzuetan egindako berrikuntzagatik saritu zuten.

2011ren amaieran, Euskadiko Kutxak Lagun Aro Aseguruaren kapitalaren % 100 bereganatzeko geratzen zitzaion kapitalaren zatia eskuratu zuen.

2012. urtearen hasieran aseguruaren jardueraren Euskadiko Kutxaren barruan integratzeko lehenengo urratsak egin dira. Prestakuntza programa bat egin ondoren, Lagun Aro Aseguruaren 50 Kudeatzaile Espezialista Euskadiko Kutxako Sare Tradizionalean sartu dira. Espezialista horiek aseguruaren zuzeneko sare komertzialetik datoz, eta proiektu pilotu bat hasi dute, Euskadiko Kutxako bezeroei Euskadiko Kutxako bulegoen saretik bertatik espezialisten bidez aseguruak eskaintzeko.

Estrategia berri horrekin, Euskadiko Kutxak eta Lagun Aro Aseguruek Euskadiko Kutxako sukurtsaletako zuzeneko kanala indartzea espero dute, Euskadiko Kutxako bezeroengana **eskaintza bakar baten** bidez iristeko; eskaintzak aldi berean familien eta enpresen behar finantzarioak eta aseguruari buruzkoak ase nahi ditu.

Marka hobetzeko helburu estrategikoaren barruan, Lagun Aro Aseguruak etxeak ACB ligako taldeak babesten jarraitu zuen: Caja Laboral, Gescrap Bizkaia eta Lagun Aro GBC.

Apustu horrek markaren irudia indartzea ahalbidetzen du, bai aseguratzaileari bai Euskadiko Kutxari dagokionez, eta bi erakundeek negoziari mesede egiten dio.

Horrez gain, **Lagun Aro-Gizarte Begirada Fundazioak** gizartearen lan handia egiten jarraitzen du, bere hiru jardueraren esparruetan: herritarren artean kirola bultzatzea osasuna sustatzeko, kultura bultzatzeko ekintzak eta trafiko istripua nozitu duten pertsonen bizitza kalitatea hobetzera bideratutako ekimenak martxan jartzea, STOP Istripuak etxearekin egindako aliantzaren bidez. 2011. urtean, Fundazioak Euskal Autonomia Erkidegoan aitzindaria izan den zerbitzu psikosozial bat abiarazi zuen trafiko istripuen biktimei eta haien senideei arreta emateko. Denbora horretan 300 ordu eman ditu biktimei arreta indibidualizatua ematen, 75 pertsonak hainbat talde terapiatan parte hartu dute eta 500 dei ingururi erantzun zaie.

2



### INDUSTRIA



2011. urtean zehar berriro ere motelaldi ekonomikoa gertatu da, eta urtearen azken hiruhilekoan hazkundea negatiboa izatea ekarri du, nahiz eta ekitaldi osoari dagokionez, 2010arekin alderatuta, oraindik ere hazkunde ekonomiko txikia gertatu den arren. Barne eskaera negatiboa izan da berriro ere, eta horrek kontsumoan, inbertsioan eta enplegu sorreran eragin etsigarria izan du; horrenbestez, kanpo sektoreak arindu du pixka bat jarduera ekonomiko orokorraren jarduera, bereziki industrialarena.


MONDRAGONeko Industria Arloak egoerara egokitzeko neurriak ezartzen jarraitu du, eta horrek bere fruitua eman du. Aldi berean, nazioarteko ekonomiaren egoera hobeketa eta kooperatiba askoren nazioartekotzeko ikuspegiak eskariak gradualki hobetzea ahalbidetu dute.

Industria Arloak oro har 5.929 milioi euroko **salmenta zifra** lortu du guztira, eta horrek esan nahi du 2010ean lortutako fakturazioa % 3,8 handitu dela.

Salmenta horietatik, 3.973 milioi euro **nazioarteko salmentei dagozkie**, eta horien hazkundeak (% 10,5 gehiago 2010arekiko) kontraste handia egiten du barruko salmentek izandako atzerkadarekiko (% -7,6). Horren guztiaren ondorioz, nazioarteko salmentek salmenta guztiekiko duten kuota % 67ra arte igo da, hau da, 2010ean baino 4,1 puntu gehiago.

**Kanpoko zabalkundeari** dagokionez, atzerriko merkatuetan kokatzen jarraitu dela nabarmendu behar da, izan ere, Europan, Txinan, Brasilen, AEBetan eta Indian 17 planta berri jarri dira martxan, eta dagoeneko 94 dira atzerrian dauden ezarpenak. Joan den ekitaldiaren itxieran, guztira MONDRAGONeko Industria Arloko 15.162 pertsona ari ziren beste herrialde batzuetako fabriketan eta ordezkartzetan lan egiten. FPK etxeak automozioaren sektorerako konpositezko osagai estrukturalak eta aerodinamikoak diseinatu eta fabrikatzen ditu, eta 2011n produkzio planta bat inauguratu zuen Parana estatuko hiriburua den Curitiba (Brasil). Halaber, Cikautxo kooperatiba Txinan produzitzen hasi zen, Kunshan poligonoan ezarpen bat jarrita, eta aliantza bat ere itxi zuen hodi fabrikatzaile indiar batekin, Punen (India) Cikautxo Taurus Flexibles Pvt. Ltd. sortzeko, automozioaren merkatuentzat hodiak ekoizteko. Horrez gain, Maier bizkaitar kooperatibak Indian duen nazioarteko presentzia handitu zuen Alpha Maier Pvt. Ltd. eratuz, automozioaren sektorerako plastikozko pieza eta multzo apainduak hornitzeko. Oronak ere urrats esanguratsua egin du Europan duen presentzia sendotzeko helburuan, eta Frantzia, Belgika eta Luxenburgon hiru enpresa berri erosi ditu. Eta Soraluek Alemanian duen Bimatec-Soraluce ordezkartza handitu zuen, herrialdean duen presentzia indartzeko eta bere irudia munduan proiektatzeko, herrialde horretan izaten ari den arrakastaren bitartez





Egindako **inbertsioen** zifra 335 milioi euro izan da, hau da, 2010ean egindakoena baino % 11 gutxiago, inbertsioa eskaerari egokitzearen ondorioz.

Aurreko ekitaldiko mugarrietako bat **Orona IDE0-innovation city** aurkeztea izan zen, hau da, hiri mugikortasun iraunkor eta beregainerako Europako ikerketa eta berrikuntzako lehenengo zentroa. 160 milioi euroko inbertsio global batekin, eraikin multzo bat egiten hasi zen 40.000 m<sup>2</sup>-ren gainean, eta bertan etorkizuneko hiri irisgarritasun eta mugikortasunerako sistemak diseinatuko dira. Donostiako Parke Teknologikoa zabaltzeko proiektu horretan parte hartzen ari dira halaber Mondragon Unibertsitatea eta Ikerlan.

Orona IDE0-innovation cityren helburua Berrikuntzako Ekosistema bat sortzea da, hainbat jarduera sinergiko (Enpresa + Unibertsitatea + Ikerketa) eta laborategi bat elkartzeko gune izan dadin, eraikinen ekoeraginkortasuneko eta kudeaketako puntako teknologiak aplikatzeko.

Horrez gain, 2011. urtean zehar **negozio berrien sustapenera** zuzendutako atalean bi ekimen berri abiarazi dira: Fagor Ederlanek eta Lotus Engineeringek elkarrekin garatu duten Lotus Range Extender eko-motorraren lehenengo prototipoa aurkeztu zuten Genevako Motor Show ekitaldian. Soluzioak errektuntzako motor bat eta sorgailu elektriko bat integratzen ditu, autonomia hedatuko ibilgailu elektrikoaren aplikazioetarako diseinatuta bereziki,

eta oso trinkoa, arina eta lehiakorra da. Egiten duen ekarpenik handiena da Range Extender motorraz hornitutako edozein ibilgailu elektrikoaren bateriak martxan kargatzea ahalbidetzen duela eta, horrenbestez, bere autonomia handitzea. Horrez gain, aurreko urtean Kiro Robotics ekimen berria ere abiarazi zen, osasunaren arlora zuzenduta; horretan Mondragon Assembly, Loramendi eta Aurrenak kooperatibek parte hartu zuten. Bere jarduera da ospitaleetan medikamenduak dosifikatzeko ekipamendu automatizatuak fabrikatzea eta banatzea.

**Enpleguari** dagokionez, urtearen azken hiru hilabeteetan motelaldia gertatu den arren, aurreko urtearekin alderatuta, Industria Arloak urtean batez beste

## 1\_2 INDUSTRIA ARLOA

---

okupatuta izan duen langile taldean lanpostuak mantentzea lortu du (37.891). Kalkuluaren oinarritzat ekitaldiaren hasiera eta amaiera hartuta, enpleguak izan duen uzkurdua 1.009 lanpostukoa izan da, eta zifra horren oinarrian dago Fagor Etxetresna Elektrokoak etxeak Frantziako Lyonen duen planta berrindustrializatzea eta jarduera lagatzea; prozesu horri esker plantan 550 enplegu mantendu ahal izan ziren.

Industria Arloak 2011. urtean izan duen **errentagarritasunari** dagokionez, berriz, aurreko ekitaldiko emaitzak, Kapital Sozialerako ordainketaren interesak deskontatu baino lehenago, 152 milioi euro izan dira, hau da, 18 milioi euroko murrizketa txiki bat egon da 2010ean erregistratu ziren 170 milioiei buruz.

Beste urte batez, MONDRAGONek **berrikuntzaren** aldeko apustua egiten jarraitu du, eta horren erakuslea da 822 pertsona ari direla dedikazio eskusiboarekin ikerketan lanean, hainbat teknologiatan espezializatutako hamalau zentroetan, Mondragon Unibertsitatean eta industri kooperatibetan; horrez gain, 2011. urtean 157 milioi euro bideratu dira I+G jardueretara. Kontuan hartu beharreko beste datu bat da Industria Arloak 2011n egin zituen salmenten % 20,5 aurreko bost urteetan ez zeuden produktuak eta zerbitzuak izan zirela.

**Formazioaren** atalari dagokionez, aurreko urtean 6,8 milioi euro zuzendu dira helburu horretara, hainbat

programatan banatuta, arlo teknikoan zein sozioenpresarialean. Alderdi aipagarrienen artean nabarmen daitezke Heziketa Kooperatiboa, 1.476 pertsonak hartu dutena, eta Lidergoari eta Talde Lanari buruzko Formazioa, 464 zuzendarik hartu dutena.

**Laneko segurtasunari eta osasunari** dagokionez, berriz, helburu nagusiak istripuen indizea jaitea izaten jarraitzen du, eta 1.000 langileko istripuen kopuruaren adierazlea 37,9 izan da 2011n, hau da, aurreko urtearekin alderatuz gero 2 puntuko jaitsiera handia gertatu da. Arlo horretan nabarmen daiteke, baita ere, 29 kooperatiba industrialek OSHAS erreferentziaren arabera Laneko Arriskuen Prebentzio Sistemen ziurtagiria dutela.

Azkenik, kooperatiben erantzukizun sozialari dagokionez, eta gure ingurunea egoki kontserbatzeko ardurari dagokionez, adierazi behar da dagoeneko **59 kooperatiba** direla ingurumen kalitateari buruzko **ISO-14000 ziurtagiriak** dituztenak.

### 1. Kontsumo ondasunak

---

MONDRAGONeko Kontsumo Ondasunen sektoreak nozitu du gehien egoera okerra, izan ere, 1.331 milioi euro fakturatu zuen, hau da, aurreko urtean baino % 14,8 gutxiago. Merkatu estatalaren portaera txarraren ondorioz, eta jarduerak kanpoan hedatzeko





egindako ahaleginaren ondorioz, nazioarteko salmentak fakturazio osoaren % 71,4 izan dira.

Bere marken portaerari dagokionez, Espainian % 15,6an kokatu dira, Frantzia % 14,5ean eta Polonian % 8,4an (kasu guztietan iturria GFK izan da). **Fagor** sektorearen Europako bostgarren fabrikatzailea da, eta kalkulatu da partaidetza % 5,1 dela.

Bere negozioaren perspektiben bilakaerari erreparatu gero, Fagorek bere jarduerak doitzen jarraituko du, hori ezinbestekoa baita gaur egungo abagunean. Enpleguari dagokionez, berriz, konpainiak eraginkortasunez kudeatzen jarraitzen du, bere eredu kooperatiboaren berezko neurriak eta mekanismoak martxan jarrituz, soldaten gaian lan aurrerakinak murriztuz, egutegi malguak ezarrituz eta birkokapenak eta aurretiko erretiroak eginez. Gaur egun Fagor Etxetresna Elektrikoen Taldeak presentzia handia du Europan, eta azken urteetan hori handituz joan da gainera. 6 herrialdeetan 14 planta ditu: Espainia (Arrasate -San Andres eta Garagartza-, Basauri, Bergara eta Eskoriatza); Frantzia (Orléans, Vendôme, Aizenay, La Roche); Italia (Verolanuova); Polonia (Wroclaw); Maroko (Mohammedia); eta Txina (Shanghai eta Hangzhou), 5 kontinenteetan dituen filialez gain. Nabarmendu behar da 2011. urtean Lyongo plantaren jarduerak beste enpresa berri bati laga diola, frantziar sindikatuen eta agintarien oniritzia izan duen prozesu baten bidez, eta,

halaber, Altzariaren jarduerak ere (Oñati) MONDRAGON Korporazioko beste enpresa bati laga dio.

**Konforti** dagokionez, etxetresna elektrikoena baino egoera zailagoan sartuta dago, bere jarduerak batik bat espainiar merkatura mugatuta baitaude. Aitzitik, baikortasunez begiratzen dio etorkizunari BDR Thermearekin aliantza komertziala garatzearen ondorioz, eta OEM salmentak eta bezeroak gehiagotzearen ondorioz, intermetagailuak eta eguzki katalogo berria egiteko fabrikazio planta berria martxan jarri denetik.

**Altzarien Taldeak** (Fagor Altzariak, Grumal, Zurkide, Danona, Coinma eta Gerodan) zuzenean nozitu ditu higiezinaren sektorearen kolapsoaren ondorioak, eta lau urtean eskari metatuak % 60 baino gehiagoko erorikoa pairatu du. Bulego, egongela, logela eta sukaldarako produktuen gama berriak merkaturatzeak hein batean merkatuaren gainbehera arintzea ahalbidetu du. Halaber, nazioarteko arloan eta kanal berrietan egindako ahaleginei esker, Kuban Melia hotelak eta Erresuma Batuan Ramada eta Holiday hotelak hornitu ahal izan dira.

Horrez gain, Altzariaren Taldearen barruan sinergiak aprobetxatzeko proiektuak lantzen jarraitzen da, bai industri lantegien espezializazioari dagokionez, bai erosketak elkarrekin egiteari, sinergia komertzialei, egitura

## 1\_2 INDUSTRIA ARLOA

---

murrizteari eta abarri dagokienez. Epe laburrera ildo horretan bertan aurrerapen handiagoak egongo direla aurreikusi da.

Egoera ekonomikoaren ziurgabetasunak markatutako urte batean, **Orbeak** merkatuan duen kokapena defenditu du, eta are % 7ko hazkunde globala ere lortu du, 2010eko salmentei dagokienez.

Nabarmendu beharra dago, gainera, hazkundera modu orekatuan gertatu dela barne merkatuan zein nazioarteko merkatuan. Datu horrek, eta bizikletaren beraren kanpoko produktuen negozio zifrak gero eta partaidetza handiagoa izateak –hala nola kaskoak, triatlonerako neoprenoak, ehungintzako produktuak...– zabaltzen ari den proiektu bat erakusten dute.

**Dikarrek** kirol ehizarako armen Europako merkatuan sartzeko urtea osatu du. Aurrerakargako armetan CVA markarekin merkatu iparramerikarrean tradizionalki duen indarra ongi kokatuta mantenduz, orain Bergara markarekin produktu kategoria askoz zabalago eta potentzial handiko batean sartzen asmatu du. Bere kanoien kalitatea eta doitasuna aitortu izana izan da produktuaren beste kategoria batzuetara mugitu ahal izateko oinarria.

**Eredu** kooperatibaren negozioaren oinarria **Enea** diseinuko altzaria da, bereziki “Contract” segmentura bideratuta. Negozio horri eusten dioten

zutabeak dira diseinu bereizgarria bilatzen duten programetan izandako arrakasten historia luzeak, erabileraren polibalentzia eta industrializazio bikaina. Eredu lortu egin du Lluscá, Teixidó edo Liévore bezain diseinatzaile ospetsuek beren diseinuaren balioa Ene markari ematea. 2011. urtean, barne merkatua guztiz uzkiar egonik ere, Eredu bere esportazio zifrak % 20 haztea lortu du.

Osasunaren sektorean, berriz, hainbat urtez Bexen marka partekatu eta gero, **Oiarsok** eta **Osatuk** beren markaren irudia berrantolatu eta bultzatu dute, eta erabilera bakarreko material medikoa **Bexen medical** markaren pean elkartu dute eta elektromedikuntzako ekipamenduak **Bexen cardio** markaren pean.

Oiarsori dagokionez, nahitaez, ekitaldian bateko eta beste erkidego autonomoetako Administrazio sanitarioek duten zorrak eragindako egoera finantzarioa hartu behar da kontuan, izan ere, oso zaila litzateke enpresa txiki edo ertain batentzat hori jasatea, ez balu MONDRAGONen babesa.

Txinan Kunshaneko industrialdean duen lantegi produktiboa behin betiko finkatu delarik, mugarri garrantzitsua ezarri da Oiarso etorkizunera begira sendotasunez kokatzeko.

Osatuk R800 izenarekin egin duen serie berriko lehendabiziko ekipamendua amaitu du, eta horrenbestez

desfibriladoreen plataforma berria merkaturatzea galarazten zuten atzerapenak gainditu ditu.

## 2. Ekipo ondasunak

---

Ekipo Ondasunen sektoreak 1.115 milioi euro fakturatu zituen eta, horrenbestez, % 19,2ko hazkunde nabarmena izan zuen aurreko ekitaldiarekiko; nazioarteko salmentei dagokienez, salmenta guztien % 73,1 izan ziren.

**Automatizazioan eta Kontrolean, Fagor Automazionek** urterako aurreikusitako salmenta plana bete du, eta % 2 hazi da, merkatu nagusi guztietan lehenengo seihileko bikain bat egin ondoren; horrek Europako eta Txinako eremuak azken lauhilekoan izandako motelaldia gainditu eta arintzeko balio izan du. Ondorioz, bigarren urtez jarraian, nazioarteko salmentetan errekor berria lortu da: totalaren % 89.

Bereziki aipagarriak izan dira Italiako eta Taiwango merkatuetan izandako hazkundera eta are nabarmenagoa Estatu Batuetakoa, herrialde horretako segmentu aeroespazialean kokapen gero eta handiagoa lortuz.

Italia, Alemania, AEB, Taiwan eta Txinan egitura komertziala eta teknikoa indartu dira, Indiako azpikontinentean sarea zabaltzeko da eta Italiako Ivrea I+G unitate bat ireki da; horrek guztiak



oinarriak ezarri ditu merkatu horietan kuota handiagoa lortzeko.

Produktuari dagokionez, 8055PPC CNC aplikazioak martxan jarri dira, segmentu ertainera zuzenduta, eta goi gamako 8065 produktua ere martxan jarri da, eta arrakasta nabarmena lortzen ari dira.

Atzipenaren arloan, Fagor Automazionek luzera handiko makinatarako erregela absolutuen lidergo teknologikoa eta merkatukoa mantentzen du.

Fagor Ederlanekin lankidetzan egiten ari den proiektuaren barruan, 2011ko erronka garrantzitsu bat izan da 50 kW-eko sorgailu-bihurgailu baten prototipoa arrakastaz garatzea eta Fagor Ederlanek eta Lotus Engineeringek egindako eztanda motorrean uztartzea.

**Mondragon Assemblyk** 2011n jarduera handia garatu du nazioartean, eguzki produktu fotovoltaikorako proposamen aurreratuekin eta entregarako malgutasun handiarekin eta azkartasunarekin; horri esker, fakturazioaren zifra % 58 inguru handitu ahal izan du.

“Abiadura handiko lerro automatikoetan”, lantegiek beren kokapena hobetu dute, maila globaleko hainbat sektore eta bezeroentzat proiektu handiei ekinez. Halaber, kosmetika eta osasunaren sektoreetarako soluzio berritzaileak diseinatzen jarraitu du.

## 1\_2 INDUSTRIA ARLOA

---

**Txirbil harroketaren bidezko Makina-Erreminten sektorean, DANOBTAGROUPek** % 17 handitu ditu bere salmentak, eta aurreko ekitaldian hasitako etekinen bidea sendotu du.

Txina eskarien rankineko lehenengo herrialdea dela berretsi da; Taldearen historian 2010. urtean lortu zuen kokapen hori lehendabiziko aldiz. Alemaniak, Frantziak eta Erresuma Batuak jarraitzen diote DANOBTAGROUPeko eskari gehien atzitu dituen herrialdeen zerrendan.

Berrikuntzaren esparruari dagokionez, 2011. urtean hainbat arlori helduta garatu du bere produktuen gama. Alde batetik, neurri handiko piezak fabrikatzeko apustua mantendu du – **IK4-Idekorekin** lankidetzan – , eta aldi berean fresatzeko makina handien (FXR) eta artezteko makina handien (WT) gama osatu du.

Beste aldetik, sektore estrategikoetarako soluzio espezializatuak garatzen lan egin du, horien artean trenen sektorerako. Soluzio sektorialean arloan, halaber, IK4-Idekorekin eta MONDRAGON Healthekin elkarlanean, bide berri bati ekin dio osasunaren sektoreko piezak fabrikatzeko sistemak garatzeko.

Horrez gain, 2011n zehar, aurreko ekitaldian hasitako inbertsioak gauzatzen jarraitu du. Horrenbestez, ekoizpen lantegiak zabaltzeko eta dagoeneko

badaudenak berritzeko lanak egiten jarraitu dute.

Bere filialei dagokienez, aipatzekoa da Alemaniako **Bimatec-Soraluce** eta **Danobat-Overbeck** filialek eta Ingalaterrako **Danobat-Newallek** izandako portaera ona. Aldi berean, DANOBTAGROUPek Indiako Punen lantegi berria eraikitzen jarraitu du, eta 2012aren erdialdera amaitzea espero du. Eginkizun produktiboez gain, (Indiako merkatuaren eskaerara egokitutako makinak), ezarpen horrek laguntza handia emango dio Taldeak Indian DANOBTAGROUP-India filialaren bitartez garatzen duen jarduera komertzialari. Txinan 20 urte beteko dira taldeak ordezkari zuzenak duela, eta iaz Taldearen zabalkunde komertzialerako plani ekiteko oinarriak jarri ziren, DANOBTAGROUP-Txina filialaren bulego berriak irekiz. Alemanian, berriz, Bimatec-Soraluce filiala zabaltzeko proiektuari ekin zitzaion. 6 milioi euroko inbertsio horrekin, Taldeak merkatu alemanean duen lidergo kokapena indartu du. Azkenik, 2011. urtean Errusian enpresa filial bat eraiki zen, DANOBTAGROUP-Errusia, 2012an operatiboko egongo dena.

**Deformazio bidezko makineriari** dagokionez, automobilaren eta siderurgiaren sektoreen merkatua asko hedatzen ari delarik, **Fagor Arrasatek** hazkunde handia izan zuen, eta eskarien atzipenean maximo historikoa lortu zuen. Automozioaren negozioak

nabarmen hobetu du bere kokapena sektoreko lider nagusien artean, besteak beste eskariak lortu baitu Renault, Ford, VW, PSA, Daimler, Gestamp, Shanghai Xinpeng, Toyota, Nugar, Great Wall edo SGMrentzat. Fagor Arrasate gaur egun mundu mailako puntako enpresen artean kokatuta dago automobilaren sektoreari dagokionez. Arlo horretan, munduko automobil fabrikatzaile nagusietako batean abiadura handiko prentsa robotizatu eta sinkronizatuen linearen kontzeptu berri bat ezarri da, “Wave Line” izenekoa, mundu mailan garapen aitzindaria eta teknologikoki iraultzailea dena.

Siderurgiaren negozioak bere presentzia multinazionala indartu du, oso bezero garrantzitsuentzako proiektuak eginez, horien artean, besteak beste, ArcelorMittal, Baosteel, Bushan, Acerinox, Erdemir, Tata Steel, Bamesa, Gonvarri, Knauf, Salzgitter, Thyssen edo Novosibirsk. Akaberako lineetan, Fagor Arrasate gaur egun mundu mailako lidertzat jotzen da salmentei eta nazioarteko presentziari dagokionez. Horrez gain, laminatzeko makinak eta prozesu lineak garatzeko taldea finkatu eta dagoeneko ezarrita dago, konpainiak bere bezeroak zerbitzatzeko estrategiaren barruan. Beste enpresa garrantzitsuetako eskariak ere jaso ziren, horien artean Whirlpool, Symaga, Valeo edo GE enpresetakoak, piezak konformatzeko sistema bereziak instalatzeko.

2011. urteak, halaber, garapen teknologikoak eta ekintza komertzialak finkatzeko balio izan du, Fagor merkatu nitxo berrietan posizionatzeko, horien artean egonik *press hardenning* – Hotteknikekin lankidetzan-, profilaketa aldakorra edo laminatze elektrikoak fabrikatzeko makineria. Estanpazioko soluzio hidraulikoetan espezialista den Onapres, berriz, automozio sektoreko OEM garrantzitsuetan kokatu da, Fagorren eskutik.

Azkenik, adierazi behar da Txinako FMMTK planta ahalmen betera iritsi dela eta merkatu hartan erreferentzia nabarmen bihurtzen ari dela, bere kalitateagatik eta zerbitzuagatik.

**Packagingerako makineriaren** arloan, nazioarteko eremuan, AEBetan makina termokonformatzaileen salmenta hasi dela nabarmendu behar da, iparramerikar bazkideekin duen joint-venturearen bitartez, eta baita ere Brasilen ingeniartzaren eskaintza egiten hasi dela eta Suitzan ingeniartzaren jarduerari ekin zaiola. I+Garen esparruan, Linuxen oinarritutako PC plataforma garatu da, eta landa probak egiten hasi dira. Zaintza teknologikorako jarduerak bultzatu dira, eta “Berripack” buletina atera da euskarri gisa. Halaber, opilgintzaren sektorerako abiadura handiko makinaren lehendabiziko prototipoa aurkeztu da, eta linea hasiera eta amaierarako karga eta deskargako elementuak garatzen hasi dira.

Antolamendu, industria eta kalitatearen mailan, azpimarratu behar da termokonformazioko linea berrantolatu dela, flow pack ekipamendua teknikoki hobetu dela eta hornitzaileen kalitatean aurrera egin dela. Arlo estrategikoan eta gestio ereduaren arloan, linea bakoitzean hausnarketa estrategikorako jardunaldiak egin dira, zerbitzuaren linea barne, produktu/merkatu kokapen estrategikoa definitzeko eta etorkizunean erantzun beharreko erronka nagusiak definitzeko helburuarekin. 2011n **ULMA C y E** banantzeko prozesua gauzatu zen, eta Precinoxentzat etorkizuneko planteamendua definitu zen; azken horrek antolamendua eta merkatua finkatzeko prozesuarekin jarraitu zuen, produktu konplexuagoak atzitzuz.

**Ontzi termoplastikoetarako putz egindako estrusio bidezko makineriari** dagokionez, 2011. urteak nazioartean jarduera handia egin behar izatea ekarri dio **Urolari**, eta gaur egun esnekien eta ura botilaratzearen eta beste merkatu nagusi batzuetan dago presente. Aliantzen garapenari esker konbi makinak jarri ahal izan dira merkatuan, eta harrera ona izan dute. Era berean, Urolak tresneria eta soluzio pertsonalizatuaren eskaintza egiteko ahalmen handia du. Ontzien jarduerak, berriz, bezeroen eskakizunei egokitutako horniduran hobetzen jarraitu du.

**Konformazioan eta Mihiztaduran**, oro har, eskarien atzipenak hobetzen

jarraitzen du, eta prezioan susperraldi txiki bat hautematen hasi da, errentagarritasunak hobetzeko aurreikuspen sendoak egin ahal izatea dakarrena. **MB Sistemasek**, 2011n zenbait arazo nozitu eta gero, eskaera onekin eta ongi oinarritutako baikortasunarekin egingo dio aurre 2012ari.

**Fundizioan eta Tresnerian** atzipenetan eta salmentetan errekorrak gainditu dira, bai **Aurrenaken** bai **Loramendin**, eta errentagarritasunak nabarmen finkatu dira.

**Ekipamenduen eta Kameren Eraikuntzaren** atalean, **Kidek** nazioartean hedatzeko prozesuarekin jarraitu zuen, batez ere Txinako eta Indiako lantegietan zentratuta, eta Errusian eta Alemanian ere aurrerapauso nabarmenak egin zituen. Horrez gain, konpainian industri hozkuntzaren negozioa ere sartu zen, eta giltza eskura erako hozkuntza plantak eraikitzeko negozio bat martxan jarri zen.

**Fagor Industriali** dagokionez, aurreko urtean nazioarteko merkatu berrietan hedatzeko politikarekin jarraitu zuen, eta Txina, AEB, Australia eta Kolonbiako filialetan salmentak asko handitzea lortu zuen; gainera, Brasilen beste ordezkari bat ireki zuen, baita beste bat ere, Karibe aldeko ostalaritza sektorean negozioa garatzera zuzenduta. Halaber, hainbat proiektu integral gauzatu zituen, *showroom* berria eta demoen gela

## 1\_2 INDUSTRIA ARLOA

---

diseinatzetik eta fabrikatzetik hasita, Oñatiko egoitza nagusian. 2011n hasitako beste proiektu handietako bat da Bilboko Guggenheim museoan dagoen Nerua jatetxearen diseinu integrala egitea, baita ere Etxe-Lan bere banatzailearekin batera Basque Culinary Centerreko instalazioen ekipamendua. Ospitaleen atalean, duen neurriagatik Valentziako La Fe ospitaleko sukaldearen eta janariaren banaketaren obra osoa azpimarratu behar da.

Beste sektore batzuetan, **ULMA Agricolan** salmentak mantendu egin dira atzerriko merkatuetan, eta merkatu nazionalen portaera ere ona izan da. Tecnaliarekin elkarlanean egiten ari den Eclipse garapenaren barruan, **ULMA**ko berotegien landa probak egin dira, Neikerrek Derion (Bizkaia) dituen finka esperimentaletan, emaitza teorikoak datu errealekin kontrastatzeko. Proiektuaren xedea da udan produkzio fotovoltaikoa berotegi barruko laborearekin uztartzea. "Egitura Estandarra" izeneko proiektuaren hobekuntzen ezarpenaren azken fasea ere gauzatu da. Horrez gain, merkatura hainbat produktu atera dira, aurreko produktuekin alderatuta, diseinuan, prestazioetan eta kostuetan hobekuntza lehiakor gehiago dituztenak.

Eta **ULMA Orga Jasotzaileetan** azpimarra daiteke USM Finance sortu izana, alokairu kontratuak makinaren salmentara eramateko tresna gisa, bezeroa kaltetu gabe, alokairuen ordez *renting*-a jarritz. Tresna horren arrakastaren ondorioz,

negozioaren finantzaketa beharrak nabarmen murrizten dira. Halaber, Centromanen erosketa eta Erdialdeko posizionamendua finkatu dira; horrek malgutasun handia dakar negozioaren gaur egungo egoerarekin bat etorriko diren planteamendu estrategiko desberdinak egiteari begira.

Maila nazionalen zein internazionalen, **ULMA Inoxtruk**en sare komertzialak osatzen eta finkatzen jarraitzen du, ingurune higienizagarrietarako orgak fabrikatzeko. I+G jarduerak alde batera utzi gabe, produktuaren katalogoa hobetzeko eta osatzeko, dagoeneko 1,2 milioi euroko maila lortu duten salmentak egiten hasi dira. Era berean I+Gan egindako lan handia azpimarratu behar da, esaterako, baterien birsorkuntzaren sektorearen jarduera martxan jartzeko.

Azkenik, **ULMA Handling Systemsek (UHS)** nazioarteko merkatuetan hazten jarraitu du, eta bere aliatuen sarea indartu du (merkatua eta produktua) bere balio proposamena hobetzeko eta lidergo kokapena mantentzeko Handling Systems Materiako ingeniariaren jardueran.

UHSk bere negozio lerroetako jarduera dibertsifikatzen eta antolatzen jarraitzen du, automatizazio soluzio eta maila desberdinei erantzuteko. Dibertsifikazio horren barruan nabarmen daiteke *Integrated Solutions* bezalako

lerroen garapena, banaketa handiaren sektorearen logistikako beharrei erantzuteko, baita *Baggage Handling* ere, aireportuetako logistikako beharrak asetzeko.

## 3. Industri osagaiak

---

Industria Osagaien sektoreak 2.204 milioi euro fakturatu zituen, aurreko ekitaldian baino % 12,6 gehiago, eta nazioarteko salmentak guztizkoaren % 75,2 izan ziren.

Ibilgailu elektrikoaren esparruan, *Range Extender* eta "Plataforma errodatzailearen" inguruan fokalizatutako proiektuak garatzen jarraitu da, garapeneko ingeniarien formazioa eta prestakuntza handituz, Mondragon Automozioiko Zentro Teknologikoen bitartez.

**Automoziorako Osagaien** arloan, 2011ko ekitaldiak 2010ekoaren ildoari jarraitu dio, eta jarduera nabarmen hazi da, aurreko urtean baino % 14 inguruko igoerekin. Horrek ekarri du enpleguan hazkunde handiak egotea, bai maila lokalean bai nazioarteko mailan, lehenagotik zeuden errentagarritasun mailak mantentzea lortuz.

2011ko ekitaldian nazioarteko jarduera bereziki bizia izan da, 5 planta berri ireki baitira, guztira nazioartean 17 ezarpen izateraino.



Urtearen azken zatian Europako eta gorabidean dauden herrialde askotako merkatuan nolabaiteko geldialdia gertatu da, eta horrek seguruenik eragina izango du hurrengo urtearen bilakaerari dagokionez.

**Fagor Ederlan Taldeak** hazkundera izan du urtean zehar, salmentetan zehazki % 8 aurreko urtearekin alderatuta, eta ia bere jarduera guztietan Gestio Planaren aurreikuspenak gainditu ditu. Hazkunde horrekin batera Fagor Ederlan Taldea merkatuan birkokatu egin da, eta ondorioz bezero nagusien konfiantza handitu ahal izan da, eta aldi berean enplegua sortzea, 3.722 lanpostu izateraino.

Gaur egungo kokapena bermatzeko zutabe nagusia presentzia globala lortzea izan da. Gutxi gorabehera, salmenten % 14 Europakoak ez diren merkatuetan egiten dira. Ildo horretan, 2011ko ekitaldian zehar honako estrategia hauei ekin die:

- Txasisa. Txinan lehendabiziko lantegia jartzea (Kunshan), 2012ko lehenengo seihilekoan ekoizten hasiko dena.
- Powertrain. **Fagor Ederlan Slovenskon** instalatutako ahalmena handitzea eta **Fagor Ederlan Tafallan** moldeatzeko linea bat martxan jartzea, motorreko blokeen negozioa Europako merkatuan birkokatuko duena.



## 1\_2 INDUSTRIA ARLOA

---

Etorkizuneko proiektu berrien garapenari begira, 2011. urtean bi jarduera berriren bultzada gauzatu da, eta horren ondorioz 2012ko lehenengo seihilekoan bi enpresa berri sortuko dira.

- Automozioa: **Fagor Edermotion.** Enpresa honek motorrak fabrikatzen ditu, ibilgailu elektrikoaren autonomia handitzeko.
- Ingurumena: **Fagor Edergarden.** Enpresak lohiak prentsatzeko makinak merkaturatzen ditu, eta etorkizunean berak fabrikatuko ditu.

Bi kasuetan lankidetzaz sustatuz **Fagor Automotonekin** eta **Fagor Arrasaterekin**, hurrenez hurren.

**Mapsak**, zenbait ekitaldi oso zail igaro eta gero, eta eskariak atzitzeko eta barne produktibitatea hobetzeko prozesu bizi baten ondoren, errentagarritasuna hazteko oinarri moduan balio duten oreka ekonomikoa eta emaitza positiboak lortu ditu.

**Ecenarrok** balio erantsi handiagoko produktuetan hazten jarraitzen du (zehazki % 14 gehiago 2010ean baino), batez ere pieza berezietan, horien eskariak 2011n salmentei buruzko % 32 izan baitira. Gainera, ekitaldi horretan inbertsio handia egin da hotzeko estanzioaren arloan.

**Maiarren** urtea MTC Ikerketa Zentro berrituaren inaugurazioarekin hasi zen,

eta akaberetan eta estetikan kanporako zein barrurako produktuen katalogo baterako zabalkunde berritzaile bat ere egin zen, bezeroen artean lehen mailako kokapena izatea ekarri diona.

Urtearen alderdi nagusietako bat eskarien atzipena izan da, bere historiako errekor guztiak gaintu direlarik, datozen urteetan zabalkunde handi baten iragarpen moduan.

Zabalkunde horri presentzia internazional gero eta handiagoa gehitzen badiogu, taldea Europako lehen mailako erreferente moduan finkatuko da automotioaren sektorean.

**Cikautxo** Indian eta Txinan planta berrietan eragiketarako egiten hasi da, eta ezarpen berriak egiteko azterketa prozesuak egiten ari da, globalizazio prozesua garatzeko; horri esker, hornitzaile global bat behar duten ekoizle guztien *partner* gisa kokatzen ari da.

Produktu berriak eta produktibitatearen hobekuntza bilatzeko apustua areagotu egingo da, hurrengo urtean gauzatu den Zentro Teknologiko propio baten sorreraren bidez.

**FPK-k** 2011n salmentak % 5 handitzea lortu du, baita errentagarritasuna hobetzea ere. 2012rako salmentetan pixka bat jaistearen espero du, produktuetan egingo dituen

aldaketengatik, baina horiek erruz berreskuratuko dira 2013an.

**Batz Sistemasek** nazioarteko garapenarekin jarraitu du, Txina, Txekiar Errepublika eta Mexikoko lantegietan. Halaber, Termosolar negozioan indartzen jarraitzen du, zilindro paraboliko eta dorreko zentraletarako zati estrukturalak hornituz, baita eguzki baratzeak muntatuz ere. Azkenik, FPKren negozioaren garapenean bi enpresen arteko elkarlanerako proiektuak aurrera jarraitzen du.

**Etzetresna Elektrikoetako Osagaietan**, 2011ko ekitaldian aurreko urteko ibilbidea eten egin zen negozio bolumenari dagokionez. 2010. urtean salmentak % 20 hazi zirelarik, 2011n ere aurreko urteko fakturazioa errepikatu zuen.

Ekitaldiak bi fase izan zituen: lehenengo seihilekoa datu positiboagoekin, eta urtearen bigarren zatia motelaldi orokorrarekin negozio guztietan. Eta, merkaturaren arabera, argi-ilunak izan dituen urtea izan da. Argiak gorabidean dauden merkaturatuetatik eta amerikar merkaturaren susperraldi apaletik datoz, eta ilunak Europak jarri ditu, biziberritzearen sintomarik gabe.

Eszenatoki zail horretan, osagaien negozioaren erronka nagusia enpresa eraldatzea izan da. Jarraitutako irizpideen oinarriak izan dira mundu mailako merkaturaren negozioek dituzten kokapen

argiak finkatzea, etorkizun bideragarriak ez duten atalen desinbertsioa, inbertsioen, aliantzen eta are erosketen bidez etorkizuna izan dezaketen ataletan inbertitzea, eta eskaera eta teknologia berrietatik ondoriozta daitezkeen aukerei erantzutea.

Ildo horretan, 2011ko ekitaldian oso ahalegin handia egin da **EHE** birkapitalizatzeko eta mikro-sorkuntzaren jarduera merkaturatzean sortzen joan diren arazoei irtenbide teknikoak emateko. Halaber, **Ceramat** erregailuak bezero potentzialen harrera ona izaten ari dira, eta termoelektrizitatearen jarduerako produktuen garapena eta salmentak egiten hasi dira.

Horrekin batera, ibilgailuetarako direkzio elektrikoaren garapen bat egiteko proiektu bat gidatu da, japoniar bazkide batekin, garatzeko ahalmen handia izango duen jarduera berri baterako oinarria jar dezakeena.

Gainera, negozioak behar bezala birdimentsionatzeko helburuarekin, **Matz-Errekak** V2 italiar enpresaren % 20 erosi du, eta epe laburrera kapitalaren gehiengoa bere esku edukitzeko aukera handiak ditu. Enpresa horrek lantegiak ditu Italia, Txinan eta Frantzia, eta Matz-Errekaren Automatismoen negozioaren jardueraren osagarria izan daiteke, bai produktuaren gamari dagokionez bai Europako merkatuetan presentzia izateari dagokionez.

Petrolio-gasa prozesatzeko, planta petrokimikoetarako eta energia sortzeko hoditerietarako **Brida eta Forjako Osagaietan, ULMA Pipingek** oso ekitaldi ona egin zuen merkatuaren egoera kontuan hartuta, eta 108 milioi euro fakturatu zituen, hau da, aurreko urtean halako bi, nazioarteko salmentak salmenta guztien % 88 izan zirelarik. 2011. urtea EPC dibisioa behin betiko finkatzeko urtea izan da, ingeniariitzi zuzenean erantzuteko, horiek urteko salmentetan dagoeneko presentzia handia lortu dutelarik, % 20 inguru; halaber, bere produkzioaren gama osatu du, Ulma Lazkao Forging martxan jarritz, hau da, gaur egun bere jardueran integratuta dagoen forja, material bereziak, lote txikiak eta ekoizpen malgua lantzen dituen.

Kobre eta aluminiozko **Eroale Elektrikoetan**, kobre eta aluminiozko hari esmaltatuak egiten dituen **Ederfil-Beckerrek** ekitaldi bikaina osatu du, salmentetan hazkunde handiak izanik (% 16). Nazioarteko salmentek aurreikuspenak ere gainditu dituzte, % 21 baino gehiagoko hazkundeekin.

Merkatuan izandako sarrera horrekin, eta negozioaren funtsezko parametroen kontrol bikainarekin, horien artean energiaren kostuak eta lehengaiaren inbentarioaren garapena daudelarik, errentagarritasun maila onak lortu ahal izan ditu.

Transformadoreen arloan, aurreikusita zegoen bezala, **Alkargok** 2011n sektore elektriko espainiarraren inbertsioaren falta nozitu du. 60 MVA eta 145 kV-era arteko transformadoreen merkaturatze sartzeko aukera emango dion planta berriak oso puntu onean kokatuko du gaur egungo bezeroengan duen partaidetza handitzeko eta, aldi berean, merkatu internazionalen garatu nahi duen bere eskaintza osatzen lagunduko dio.

**Hertellek** ontziz aldatzeko hutseko ponpen merkaturatze duen kokapena defenditzen jarraitu du. Nazioarteko salmenten proportzio handiari esker (% 66), kokapen sendoa mantentzeko, bere eskaintza pixkana-pixkana handitzen joateko.

**Garraiagailuetako Osagaiei** dagokienez, 2011. urtea bigarren urtea izan da **ULMA Conveyor Componentsen** hainbeste aldatzea eragin zituen Prozesu bidezko Kudeaketa Sistema martxan jarri zenetik.

Nazioarteko salmentarako sareak finkatzeko lanean jarraitu zen, eta funtsezko herrialdeetan homologazio garrantzitsuak lortu ziren. Produktuari dagokionez, diseinu berriaren fabrikazioa finkatu zen, eta exijentzia goreneko produktuen bilakaera birdiseinatzen jarraitu zen.

Atzipenari dagokionez, 2011. urtea oso urte ona izan zen, batez ere proiektuetan zentratuta; nazionalen eta esportazioan

## 1\_2 INDUSTRIA ARLOA

---

gora egin zen, 12,7 milioi euroraino, nazioarteko merkatuetan oso, portaera desberdinak izan baziren ere.

### 4. Eraikuntza

---

Krisiak sektore honi nabarmen eragiten jarraitu du, bereziki jarduera espainiar merkatura mugatuta duten negozioei dagokienez. Eraikuntzaren sektorean integratuta dauden MONDRAGONeko jardueren multzoak 1.029 milioi euroko fakturazioa lortu zuen, eta 2010eko salmentak berdindu zituen; nazioarteko salmentak bere negozio zifraren % 50,1 izan ziren.

**Jasokuntzaren Dibisioaren** salmentek 556,2 milioi euroko zifra lortu dute 2011ko ekitaldian zehar, eta lortutako emaitzak 89,7 milioi euro izan dira, bi kasuetan 2010eko datuak hobetu direlarik.

Zalantzarik gabe, ekitaldiaren itxiera bikaina izan dela esan daiteke, kontuan hartuta maila nazionalean hazkundea % 1 baino gutxiago izan dela, eta eraikuntzaren sektorea, Oronaren jarduerari oso-oso lotuta dagoena, suspertzeko seinaleak ematetik urrun dagoela.

Enpleguari dagokionez, Jasokuntza Dibisioak ekitaldiaren amaieran 4.050 profesionaleko langile talde bat zeukan, eta horien profila gero eta nazioartekoagoa da.





Orona igo egin da bai esportazioen jardueran bai zerbitzuen atalean, eta horrek merkatu nazionalaren baldintzen okertze garrantzitsua konpentsatzea ahalbidetu dio.

Aurea hartzea, zorroztasuna, eragiketa bakoitzaren eraginkortasuna eta esfortzu handia, horiek izan dira etengabe atzera egiten ari den merkatu baten baldintza txarrei aurre egiteko giltzarriak.

2011n Orona Ikuspegi Estrategikoan (VEO 2011-2014) definitutako ildo estrategikoen gidatuta kudeatu den lehenengo ekitaldia izan da. "Etorkizunarekiko konpromisoa" premisa ardaztat hartuta, zeina Orona bezalako proiektu sozioenpresarial baten ahalegina motibatzen duen arrazoia den, eta bere funtsezko ardatz estrategikoekin –Berrikuntza Teknologikoa, Nazioartekotzea, Zerbitzua, Errentagarritasuna eta Eraldaketa–, esan daiteke dagoeneko VEO 2011-2014 dokumentuan beharrezkotzat definitu zen makineria buru-belarri ari dela lanean, ingurune gero eta globalizatuago batean posizio lehiakorra finkatzeko.

Zailtasunak aukera ere badira, eta Oronak eraldatu eta bilakatzen jakin izan du, jatorri industrial eta lokal batetik zerbitzu enpresaren profil baterantz, industri jarduera oso lehiakorarekin, ingurune multinazional eta hizkuntza anitzeko batean. 2011n zehar Oronak hiru enpresa berri erosi ditu, bat Frantzian, beste bat Belgikan eta

beste bat Luxenburgon, Europan duen presentzia are gehiago finkatzeko.

Berrikuntzaren atalari dagokionez, eta etorkizuneko apustu saihestezin gisa, Orona indartsu hasi da **Orona IDeO-innovation city** proiektua konfiguratzeko eta osatzeko –Donostiako Parke Teknologikoaren luzapenean–: lehenengo harria 2011ko otsailean jarri zuen, eta urte horretako bertako azaroan obren bilakaeraren gaineko aurkezpena egin zuen komunikabideen aurrean. Azken aurkezpen horrek hamar hilabete lanek nolako aurrerapen handia izan duten egiaztatzen balio izan du, baita berrikuntzaren hiri hori 2014an inauguratuko delako konfiantza mantentzeko ere, Oronaren beraren 50. urteurrenarekin bat eginda.

Orona IDeO – innovation city gune fisiko bat da, non berrikuntzaren jardueretako parte hartzaile nagusiek modu sinergikoan funtzionatuko duten. Oronaren bultzada traktorean lagunkideak dira Orona eic, Orona Fundazioa, Orona G3A, Mondragon Unibertsitatea eta IK4-Ikerlan. Proiektu horrekin arlo akademikoa eta zientifikoa berrikuntzaren beraren ahalmenekin uztartu nahi dira, merkatuak eskatzen duen lasterketa teknologikoan Jasokuntza Dibisioaren kokapena bermatu ahal izateko.

Jasokuntza Dibisioa lider moduan kokatuta mantentzen da hiri irisgarritasun eta mugikortasuneko soluzioei dagokienez,

## 1\_2 INDUSTRIA ARLOA

---

maila nazionalen zein internazionalen. Ildo horretan, azpimarra daitezke, besteak beste, Alacanteko aireportu inauguratu berrian instalatu dituen 100 aparatu inguru, tartean igogailuak, eskailera mekanikoak, arrapalak eta pasabideak egonik; Erresuma Batuan TESCO Merkataritza Guneetako hainbat instalazio; Bilboko Metroko Aritz-Basauri geltokiko ekipamendua; Donostiako Intxaurrendoko eskailera eta arrapalak; Santiagoko aireportua; eta Bruselako Metroaren kontratazioa, 10 milioi euroekin, Oronak Belgikan dituen enpresetako baten bitartez –Coopman Liften–. Ikuspegi tekniko, profesional eta zerbitzuari buruzko batetik oso zorrotzak diren instalazio horien eta beste batzuen bitartez, agerian geratzen da Orona erreferentzia esanguratsua dela merkatuan, lehen mailako jasokuntza sistemetako partner ezagun gisa eta *premium* proiektuetan, betiere zerbitzuko estandarrik zorrotzenekin

**Eraikuntzarako Sistema Industrializatuei** dagokienez, fakturazioa **Ulma Construccione**k 2011. urtean 344 milioi euro fakturatu zituen, hau da, aurreko urtean lortutako zifra bera, Espainiako merkatuaren ekarpena % 20ra murriztu bazen ere. Atzerriko merkatuetan 227 milioi euro fakturatu ziren, negozioaren historiako errekorra, eta 2011ko ekitaldiarekin alderatuta % 10 hazi zen.

Beste alderdi aipagarri batzuk izan ziren Oshas 18001 ziurtagiria,

erabilitako materialaren inguruan izandako mugimendu handia, enkofratu autoigokarien sistemen eremuan egin zen aurrerapen handia, eta ULMA Packagingetik banantzeko erabakia.

**Eraikuntza metalikoetan, URSSAk** ekitaldi zaila izan zuen, munduko eszenatoki ekonomikoaren atoniak eskarian eragindako jaitsieraren ondorioz. Aurreko ekitaldiko proiektu berezien artean honako hauek nabarmen daitezke:

- Industri eraikuntzan, eskaera bat lortu zuen ENCErako (Huelva) biomasaren inguruko planta bat eraikitzeko.
- Hiri eraikuntzari dagokionez, Lyongo “Musée des Confluences” museoko egituretarako 2.000 tona altzairu, edo Parisko Jean Bouin estadioko eskeleto metalikoaren 1.700 tona, eta Le Havre estadioaren tribunak eta estalkia, hori ere Frantzian.
- Ekipo Ondasunetan, Pacedo Españak URSSAri esleitu zion porturako hiru garabi egitea: horietatik bik 1.900 tonako egitura dute, eta Sinesko porturako dira (Portugal), eta hirugarrenaren egiturak 590 tona ditu, eta Anberesko porturako da (Belgika).

Eraikuntzarako aurrefabrikatuei dagokienez, **ULMA Hormigon Polimero**

salmenten % 82an kokatu zen 2011. urtean, baina emaitza negatiboak kontrolatzea lortu zuen, nozitzen ari den krisi guztiz gogorari aurre eginez... Egindako lorpen nagusiak izan ziren kostuak eta gastuak doitzeko plana, produktibitatea hobetzea ahalbidetu ziona, eta nazioarteko merkatuen aldeko apustua, aurreko ekitaldian egindako zifra % 29 handitu zuelarik.

Plan Estrategikoaren esparruan, honako jardura hauek gauzatu ziren: fatxaden itxituretarako negozio lerro berri baten sustapena; teknologiaren transferentziarako negozioaren sustapena, eta arlo honetan Mexikon harreman garrantzitsuak lortu dira; Red Electricak produktua homologatzea, bide elektrikoetan eroapenaren kanalizatorako, eta errehabilitatorako aurrefabrikatu arkitektonikoen jardura bultzatzea; eta Brasilgo filiala sortzea eta fatxada aireztatueta bi obra egitea.

Egurra zerratzera eta baso ustiapenera dedikatzen den **Etorkik**, 2011ko ekitaldian hazkunde handia izan du bere jardueran aurreko urtearekin alderatuta (% 14,3), batez ere esportazioko salmentetan eta bere jardueraren sektore garrantzitsuen finkapenean bermatuta –esaterako, europaleta–.

2011n zehar, eraikuntzaren ahultasunaren ondorioz, batik bat urtearen azken zatian, orientazio komertziala industriako enbalatzearen


azpisektoreetan zentratu da, bereziki esportaziora zuzendutakoetan.

Azpimarratzekoa da bere baso ustiapena indartu izana, autonomia maila handiagoa ematen baitio lehengai hornitzeari dagokionez.

**Lanak** enkofratuetarako zurezko produktuak fabrikatzen ditu, eta zur laminatuzko egiturak diseinatu, kalkulatu eta muntatzen ditu; 2011n bere fakturazioaren bolumena handitzea lortu zuen, % 15 2010arekiko, Iberiar Penintsulan eraikuntzaren sektoreak gainbehera jarraitzen bazuen ere eta Europako gainerako herrialdeetan jarduera motelduta bazegoen ere.

Hori hala izateko arrazoiak izan dira Europako Erdialdean eta Ekialdean salmentak handitu direla, Txekiar Errepublikako filialaren bitartez, Afrikako Iparraldean ahalegin komertzial handia egin dela, bere katalogoan produktu berriak sartu direla eta zur laminatuzko egituren negozioak –**Elur**– aurrera egin duela.

Horrek guztiak, barruan hartutako neurriekin batera –egitura minimizatzea, gastuak kontrolatzea eta barne eraginkortasuna handitzea– 2010eko emaitzekiko inflexio puntu bat markatu ahal izatea ekarri du.



### 5. ENPRESA ZERBITZUAK

Azken Gestio Planetan aurrez ikusitako inguruneak okerrera baino ez du egin. Egoera makroekonomikoa ikaragarri konplikatu da eta ez du epe ertain-laburrera leheneratzeko itxurarik. Dibisioko negozio asko mugitu diren merkatuak hurbilenetan minimo historikoetan daude, ia desagertzera. Gastu eta inbertsio publikoak ia desagertu egin dira.

Seinaleak guztiz argiak dira. Alternatiba bistakoa da: beste merkatu batzuetara jotzen da edo, bestela, zailtasun handiko urteak iritsiko dira.

Inguruneak lagundu ez duen arren, ordea, **berrikuntzarako eta nazioartekotzeko** ahaleginek emaitza esanguratsuak izan dituzte. Politika argia da, duela urte batzuk hasitakoa eta dagoeneko emaitzak ematen ari dena. Ildo horretatik, jardueraren gehienetako etekinei eustea lortu da, egoera ekonomikoak eragin dituen arren. MSI baino ez da errentagarritasun atalera iritsi, nazioartekotze proiektuetako zailtasun garrantzitsuen ondorioz.

Dibisioa herrialde berrietara iritsi da, bere zerbitzuekin: Txina, India, Kolonbia, Txile, Australia, Aljeria, Maroko...

**LKS Aholkularitza** enpresak, zehazki, 2010eko salmenten % 107 lortu zuen eta emaitzen % 45eko hobekuntza,

erreferentzia esanguratsuekin, hala nola RTSrako amaitutako produktuaren biltegitarte sistema berriaren txertaketa edo Lanbiderako informazio sistemetakoa produkzio inguruneen bilakaera.

**LKS Ingeniaritza** enpresak % 17ko hazkundea lortu zuen salmentetan 2010. urtearekin alderatuta, eraikuntzak eta obra publikoak gainbehera egon arren, horrela, 2010eko emaitzak errepikatu zituen, baina GSR negozioaren ekarpen handiagoarekin. Horrez gain, proiektu gisa aipatzekoak dira Donostiako Basque Culinary Center zentrorako proiektuaren idazketa, zuzendaritza, obraren kudeaketa eta interiorismoaren

diseinua, Gasteizko Fernando Buesa Arena Pabiloiaren zabalkuntza eta India (9 kokaleku) eta Frantziako trenbideen mantentze lanetako fabrika eta tailerretako aurreproiektuak eta obra proiektuak.

**Abantail** enpresarentzat suspertzeko ekitaldia izan da, azken urte zailaren ostean. Bezeroak dibertsifikatzen jakin du, salmentetan % 6 hazi da eta aurreko urtean baino % 147 emaitza ekonomiko hobekuntza izan ditu. Forjaketarako briden konfiguratzailer berria (Ulma Piping) edo dokumentazioaren sorkuntzarako eta kudeaketarako sistema (JEMA) azpimarratu beharreko proiektuak dira.





**Ondoan** enpresa ere oso merkatu konplexuan murgilduta dago, baina bezeroen gero eta eskakizun konplexuagoei malgutasunez erantzuten jakin du. Eskaintza eskaera baino askoz ere handiagoa denez, prezioen borroka gogorra da. Hala eta guztiz ere, 2011ko salmentak aurreko ekitaldiarekin alderatuta % 104an kokatu dira. Bilboko Hegoaldeko Saihesbideko Larraskitu eta Arraiz tuneletako instalazio elektromekanikoak, Bilbao Exhibition Centre zentroko mantentze zerbitzu integrala eta Euskal Autonomia Erkidegoko ibaien kalitate kimikoaren azterketa eta jarraipena dira 2011ko zenbait proiektu.

**MSI** mundu guztiko proiektuetan murgilduta egon da: Mexikon Aqualia enpresarako ur ponpaketako estazioaren "giltza eskura" erako proiektu elektrikoa eta kontrolekoa, Argentinan Isolux Corsan enpresarako uren tratamendurako estazioaren "giltza eskura" erako proiektu elektrikoa eta kontrolekoa, eta zenbait proiektu esanguratsuren itxiera Australian, Irlandan eta Aljerian; horrek guztiak proiektuak eta pertsonak antolatzeko esfortzu handia ekarri dio, gainditzen erraza izan ez dena. Salmentak, azkenean, 2010eko % 84an geratu dira nazioartekotzeko ahalegirako horniduren ondorioz, emaitza negatibo esanguratsuekin.

**MCCTELECOM** eraikuntzaren gorabeheren mende dagoen enpresa izanik, asko

sufritu du merkatuaren erorketa, baina proiektu interesgarrietan parte hartzea lortu du, besteak beste, honako hauetan: Cobra-Sener enpresarako Vallesol I eta II zentro termosolarretako telekomunikazioetako sistemak eta Basque Culinary Center zentroko komunikazioetarako plataforma integrala, ikus-entzunezkoen automatizazio sistemak eta WiFi. Hala eta guztiz ere, salmentak joan den urteko % 88an kokatu dira eta 2010ean baino emaitza positibo hobeak lortu ditu.

Hezkuntza zerbitzuen munduan, **Alecop** 2010eko % 109an geratu zen salmenten kapituluan, eta zentzuzko emaitza positiboak lortu zituen, mundu publikoko hezkuntzako gastuaren murrizketak eragin handia izan zuen arren, eta Aljeria eta Hego Amerikako aparteko zenbait proiektu atzeman ez zituen arren. Bestalde, albiste onak izan dira Marokon eta Hego Amerikan proiektuekin abian jarritako jarduera berrietan. Azpimarratzekoak dira Kenitrako automobilgintzaren sektorean Bikaintasun Zentro baten 8 urterako kudeaketaren kontzesioa, eta Portugaleko Hezkuntza Ministerioaren lanbide heziketako 40 zentrotako birgaikuntza eta ekipamendua.

Azkenik, **Mondragon Lingua** enpresak ekitaldi bikaina egin zuen, nabarmen egin zuen aurrera zentro tradizionalen finkapenean, eta balio proposamenak berriro zituen -berrikuntzaren aldeko

apustua- eta sektoreko enpresa berria erosi zuen Madrilen. 2011ko salmentak aurreko urtekoen % 124ra igo zituen eta emaitzak, berriz, 2010ean lortutakoen % 89ra, hazteko egindako ahaleginaren ondorioz. Ekitaldiak bezero berri garrantzitsuak txertatzea ekarri zuen, besteak beste: EITB taldea, hiru egoitzetako taldeko langileen hizkuntz prestakuntzarako ikastaroak esleitu zitzaizkion; Europako Parlamentua, 4 organismoren dokumentazio guztia 5 hizkuntza nagusietatik gaztelaniara itzultzeko lizitazioa irabazi zuen, eta OIPC FUNDS ingelesetik frantseserako eta gaztelaniarako kudeaketa terminologikoko proiektuarekin, dokumentazio guztirako.

**Arte grafikoan**, sektorean, **MCCGRAPHICS** enpresak garrantzi handiko gertaera osatu du, lehendik zeuden negozioak erakunde juridiko bakarrean finkatzean. Gertakari horrek inprimategitik hasi eta aurreratutako komunikazio zerbitzueterako eraldaketa bidaiaren abiapuntuan kokatzen du, merkataritzako marketinean aholkularitza potentziala areagotzeko bokazio argiarekin eta kanal anitzeko komunikazioaren domeinurantz kokatuta.

Hori guztia, Espainiako merkatuan errentagarritasunezko eta lidergoko posizioan.

3



### BANAKETA



Honako hauek osatzen dute saila: jarduera nagusitzat txikizkako merkataritza duen **Eroski Taldea**, Eroski, S. Coop. enpresa sozietate nagusitzat duena eta **Erkop**, nekazaritzako elikagaien sektoreko bost kooperatibaz osatutako bigarren mailako kooperatiba, bere sozietate partaidetuekin batera.

Egoera ekonomikoak eta kontsumo ohituretan izan duen eragin izugarriak Eroskiko ekitaldia markatu du berriro ere; kontsumitzaileengandik gertu egoten oinarritu du egitekoa, bizitza errazteko eta aurrezten laguntzeko, kontsumoaren eta balio erantsi txikiagoko produktuen erosketa murrizteko joera arindu nahian.

Hori dela eta, ahalegin nagusiak bezeroei balio proposamena optimizatzerara bideratu dira, produktuen prezioak hobetuta eta sustapen berriak eskainita, aurrezten laguntzeko. Hori horrela, Eroskiren 2011ko apustu nagusietako bat **prezioen murrizketa** izan da. Horretarako, mota guztietako produktuetan eskaintzak eta sustapenak egitera bideratuta, 100 milioi euro inguru inbertitu ditu. Ekitaldiak iraun duen artean, une batean edo bestean, 28.000 erreferentzia inguru izan dira promozioan Eroski dendetan. Horietako gehienak erosketa saskiko kategoriarik oinarritzeko eta ohikoenetakoak izan dira.

Kontsumitzaileen osasunaren zaintza eta ongizatea denez Eroskiko beste ardatz nagusietako bat, joan den

ekitaldian **produktu osasungarriagoen** sorta. Eroskiko Kalitate Sailak hainbat urte eman ditu lanean mendebaldeko elikaduraren desorekak –azukre, koipe eta gatz gehiegi ahoratzea bereizgarri duena– hobetzen laguntzen duen gama horretan.

Berrikuntza etengabea izaten jarraitzen du Eroskin, eta presente dago jarduera guztietan, banaketa plataformetatik hasi eta dendetaraino, produktuetatik eta lan taldeetatik igarota. **Berrikuntzaren aldeko apustu** horren emaitza da Zarauzko (Gipuzkoa) Eroski hipermerkatua, bezeroek Eroskiri helarazitako iradokizunak jarraitzen dituen erosketa kontzeptu berria: denda berria, aukera, zerbitzu eta tokiko produktu gehiagoko proposamenarekin. Hilabeteetan lanean aritzeak, prestakuntzak eta 2 milioi euroko inbertsioak ahalbidetu dute Zarauzko Eroski hipermerkatu berria; bertan, janari freskoen eremua da apustu handienetako bat.

Eroskik **ingurunearekiko** duen konpromisoaren barruan, 2011n ingurumenaren zaintza bere markako produktuen diseinua hobetuta eta ontziratzea kontrolatuta islatu du. Plan horrek erronka bikoitza lortu nahi du, hau da, produkzioko kostuak murriztea eta produktuen ingurumeneko inpaktua arintzea, bilgarriaren pisua txikiagotuta, lehengaiak kenduta edo material batzuk besteekin ordezkatuta. Egindako

hobekuntzen ondorioz, CO2 isurketak 950 tona murriztu dira, hau da, autoz bost milioi kilometro gutxiago egitearen edo 2.800 zuhaitz landatzearen baliokidea izango litzatekeena.

Komunitateari emandako laguntzaren barruan, eskualdeetako ekonomiari emandako laguntza nabarmendu da.

2011n, Eroskik **tokiko produktuaren alde** lanean jarraitu du. Horretarako, hitzarmenak abian jarri dira administrazioekin eta beste erakunde batzuekin. Tokiko produktuak bultzatzeko ekitaldiak ere antolatu dira, hala nola 2011ko denboraldiko Idiazabal gaztaren aurkezpena eta dastaketa, Arteagako (Bizkaia) Eroski

Hipermerkatuan antolatu zena, Euskaltel-Euskadi Txirrindularitza Taldearekin batera.

Ekitaldi horretan **Basque Culinary Center** (BBC) zentroarekin hasitako lankidetzari jarraipena eman zaio eta "Gure zapoak sukaldean", programa abian jarri da. Programa horrek hegaluzea




## 1\_3 BANAKETA ARLOA

produktu nagusi zuela egin zituen lehen urratsak Gipuzkoan eta Kantabriako haragia protagonista zuela Santanderren. Bi kanpainak BCC zentroko sukaldarien babesa izan zuten eta standak, bideoak, showcooking, sustatutako produktuarekin egindako errezeta errazak... egon ziren.

Oro har, Banaketa Sailak guztira 8.040 milioi euroko salmenta gordinak izan zituen 2011n, aurreko ekitaldiarekin alderatuta % 2,9ko uzkurdua txikiarekin. Inbertsio garbiak -153 milioi eurokoak izan dira, ez estrategikotzat kalifikatutako higiezinetan desinbertsioak egin baitziren joan den urtean, bai Espainian, bai Frantzia hegoaldean. Urtean zehar enplegua batez beste 42.153 postukoa izan da, zehaztu beharra badago ere lanaldi partzialen eta osoen arteko aldearen ondorioz guztizko enplegua askoz ere handiagoa dela, 49.000 lagun ingurukoa.

Errentagarritasunari dagokionez, Eroski Taldeak -33 milioi euro garbiko emaitzarekin itxi zuen 2011ko ekitaldia, aurreko urtean baino % 46 hobeto. Taldeko matrizea den Eroski S. Coop. enpresak 45 milioi euroko etekinak lortu dituen arren, aktiboen balioaren narriadurara bideratutako 96 milioi euroko kargak baldintzatu ditu emaitza orokorrak, nazioarteko araudiak markatutako irizpideei jarraiki.

Bestalde, **Erkopeko** kooperatibek, Ausolan buru dutela, 189 milioi euroko





fakturazioa lortu dute 2011n, 7.480 langile izan dituzte lanean eta 15 milioi euroko emaitza positiboak sortu dituzte.

Azpimarratzekoa da kooperatiba guztiek emaitza positiboak lortu dituztela, eutsitako eskaerak, salmenta prezioen doitzeak eta berankortasunaren gorakada nabarmenak markatutako ekitaldi gogorrean.

**Ekitaldian izandako beste gertaera garrantzitsu** batzuk honako hauek izan dira:

- Garaia eta Barrenetxe Kooperatiben jabetzako Artandi Sozietatea errentagarritasunean sartzea; Vega Mayor enpresaren laguntzarekin kudeatzen da, IV Gamako produktuak Banaketa sektoreetara, handizkako merkataritzara eta Sukaldaritza kolektiboko enpresetara produktuak hornitzeko.
- Duela denbora bat merkatuko baldintzen ondorioz jarduera eten zuen Multifood enpresako bazkide langile guztien behin betiko birkokapena beste kooperatiba batzuetan.
- Miba enpresaren aldetik, pentsu konposatu tonen salmentan eta merkaturatzean igoera nabarmena.
- Unekel enpresako untxien produkzio nabeen berrikuntza integrala,

instalazioak klimatizatuta eta horren ondoriozko produkzioko hobekuntzekin.

- Behi Alde enpresan esne litroen produkzio historikoak, baldintza klimatologiko onen eta ganadua ondo gobernatzearen ondorioz.

4



### EZAGUTZA



### Sektore eta Proiektu Korporatibo Berrien sustapena

2011n zehar, **MONDRAGON Healthek** aurrerapauso bat egin du MONDRAGONek osasunaren sektorean dituen enpresa gaitasunen eragile korporatibo gisa sendotzeko bidean. Lehentasuna eman die proiektu integralei –hainbat kooperatiba inplikatur dauden proiektuen eskaintzak–, horietan MONDRAGON Internacionalekin elkarlanean ari baitira, azaleratzen hasi diren herrialdeetan aukera interesgarriak identifikatuta.

Iaz MONDRAGON Health Mondragon Assemblyrekin, Aurrenakekin eta Loramendirekin aritu da elkarlanean **KIRO Robotics** enpresa berria osatzeko –ospitaleetako farmazietarako ekipamendu automatizatuen fabrikazioa– eta jardura berri bat abian jarri du, **Smart Health Services (SHS)**, osasun zentroak hornitzeko erosketa eta logistika zerbitzu integratuen kudeaketarako. Azpimarratzekoa da, baita ere, Fagor Taldearekin batera egin den esperientzia, Fagor Healthcare ateratzeko, medikamentuen blisterizazio pertsonalizatua farmazia anbulatorioei irtenbidea eskaintzen diena.

Eremu soziosanitarioan, MONDRAGON Healthek GSR hedatzeko prozesu estrategikoan parte hartu du, baita

Osasun Saila, Gizarte Gaietarako Saila eta Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritza bera partaide dituen ETORBIZI Berrikuntza Soziosanitariorako Fundazioaren patronatua ere.

Osasun sektorerako formazio jardueren garapenaren ildoan, MONDRAGON Healthek Mondragon Unibertsitatearen Enpresagintza Fakultatearekin batera jardun du Osakidetzako profesionalen zuzendutako “Zuzendarientzako Kudeaketa” izeneko bi ikastarotan.

MONDRAGON Healthek akordioak eta hitzarmenak garatu ditu osasunaren sektoreko beste eragile batzuekin: Gipuzkoako poliklinika, IMQ eta Bartzelonako Vall d’Hebron ospitalea.

Aldi berean eta dibisio korporatiboen arteko lankidetzak proiektuak bultzatzeko asmoarekin, **BAC (Business Acceleration Center)** zentroak sormen saio monografiko batzuk (Dreamworks) antolatu ditu 2011n zehar, oso gai desberdinen inguruan.

Gainera, urrian, MONDRAGON OPEN INNOVATION (MOI) ekimena aurkeztu zen. Ekimenaren helburua da negozio aukera berrien sorrera eta MONDRAGONeko enpresen lehiaketarako dibertsifikazioa eta hobekuntza bultzatzea, Zientzia eta Teknologiaren Euskal Sistemarekiko Lankidetzaren bidezko Berrikuntzaren bitartez.

## Ikerketa eta Ezagutza

2011n MONDRAGONek 165 milioi euro erabili zituen I+G alorrerako. Industria Arloak balio erantsiarekiko % 9,1eko aurrekontua bideratu zuen I+Gra, eta aurrekontu hori kooperatibetako I+G unitateen bitartez, teknologia zentroen jardueraren bitartez, Zientzia eta Teknologia Plan Korporatiboaren bitartez eta Garaia Berrikuntza Gunearen bitartez bideratu zuen. Era berean, Korporazioa, osoki hartuta, asmakuntzako 508 patente familiaren jabea da.

Horretaz aparte, nazioarteko 39 proiektutan parte hartu du, horietatik 11 Korporazioko enpresek edo zentroek gidatuta egon direlarik. Proiektuen gaiak honako hauek izan dira, besteak beste: Aeronautika, Energia, IKTak, Nanozientziak, Nanoteknologiak, Materialak eta Produzizio Teknologia Berriak.

Bukatzeko, Industria Arloak 2011n izan dituen salmenten % 20,5 produktu eta zerbitzu berrienak izan dira, bost urte lehenago existitzen ez ziren produktu eta zerbitzuenak, alegia.

## Zientzia eta Teknologia Plana

2011. urtea Zientzia eta Teknologia Plana birformulatzeko erabili da, hain zuzen ere, Korporazioak egun dituen erronka estrategikoeekin lerrokatzeko eta kooperatiba guztien arteko lankidetzaz ahalik eta gehien bultzatzeko.

Honako ikerketa lerro hauek definitu dira 2012-2015 aldirako:

- Teknologia eta ekipamendu berriak produktu medikoen industrializaziorako.
- Osasun eta ongizateko zerbitzuak etxeko erabiltzailearentzat.
- Ekobarrutiak eta Smart cities.
- Energiaren kudeaketa eta optimizazioa etxebizitzaren eta etxearen ingurunean.
- Ibilgailu elektrikoa.

## Berrikuntza Eredu Korporatiboa

Zientzia eta Teknologia Planarekin gertatutakoan bezala, 2011ko urtea Gestio Eredu Korporatiboaren gaineko gogoeta eta birformulazioa egiteko erabili da, 2013-2016 aldirako politika sozioenpresarial berriarekin lerrokatzeko eta berrikuntzaren nazioartekotzeari eta ekintzailatzaren garapenari bultzada indartsu bat eman ahal izateko.


## Foroetako eta Erakundeetako presentzia

Gaur egun, MONDRAGON berrikuntza eta teknologiarekin lotuta dauden ondoko erakunde eta fundazioetan dago presente, bai eta nazioarteko hainbat foro eta erakundetan ere:

- AENOR. Normalizazio eta Egiatzapenerako Espainiako Elkartea.
- CIC Biogune. Biozientziei buruzko Ikerketa Kooperatiborako Zentroa.
- CIC Biomagune. Biomaterialei buruzko Ikerketa Kooperatiborako Zentroa.
- CIC Energigune. Energiari buruzko Ikerketa Kooperatiborako Zentroa.
- CIC Margune. Goi Errendimenduko Fabrikazioari buruzko Ikerketa Kooperatiborako Zentroa.
- CIC Microgune. Mikroteknologiei buruzko Ikerketa Kooperatiborako Zentroa.
- Iraunkortasuneko Bikaintasunaren Kluba.
- Energia Klusterra.
- Etorbizi. Berrikuntza Soziosanitariorako Zentroa.
- Euskalit. Bikaintasunerako Euskal Fundazioa.
- COTEC Fundazioa.
- Ihobe.
- Innobasque.
- Tecnalia Fundazioa.

## 1\_4 EZAGUTZA ARLOA

---



- ARTEMIS-IA. ARTEMIS Industry Association (JTI).
- EFFRA. European Factories of the Future Research Association (PPP).
- E2B. Energy Efficient Buildings (PPP).
- Green Cars. Renewable and non-polluting energy sources, safety and traffic fluidity (electric car) (PPP).
- MANUFUTURE-EU. European Technology Platform in Manufacturing (PT).
- EPoSS. European Technology Platform on Smart Systems Integration (PT).
- Rapid Manufacturing Platforma (PT).

### Zentro teknologikoak

---

**Ikerlan-IK4**, Korporazioaren erreferente historikoa da ikerketaren alorrean. 2011n 21,8 milioi euroko diru sarrerak lortu zituen; horietatik 5,7 milioi ikerketa eta estrategia proiektu propioei zegozkien eta proiektuok Eusko Jaurlaritzak, Estatuko Administrazio Orokorrak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Europar Batasunak finantzatu zituzten; 14,5 milioi, berriz, I+G proiektuei zegozkien, enpresekiko kontratupean.

Mondragon -Olandixoko, Mondragon-Garaiaiko eta Miñaoko (Araba) egoitzetan 216 ikertzaile eta teknikari ari dira lanean eta 34 lagun daude prestakuntza jasotzen.



Europar, IK4-IKERLANek VII. Esparru Programan 5,2 milioi euroko finantzaketa metatua eduki du.

Bere ikerketa propiorako Lankidetzaren Sare Globalari dagokionez, aipatu behar da aurreko urteetan EPFL, IMEC, ISEA, CGIP-UPV, TU-Viena, Edinburgoko Unibertsitate eta Lovainako KUrekin ezarritako lankidetzari aurten lortutako hitzarmen berriak gehitu zaizkiela, Oviedoko Unibertsitatearekin, Valentziako Unibertsitate Politeknikoko Codolab Taldearekin eta Gironako Unibertsitateko Amade Taldearekin izenpetuta.

IKERLAN-IK4k sortutako ezagutzari dagokionez, patenteetarako bi eskari berri tramitatu dira, Mikrosistemen jarduerari lotuta.

2011ko ekitaldian zehar, **ISEA S. Coop.ek** MONDRAGON OPEN INNOVATIONen abiaraztea dinamizatu zuen: "Berrikuntza Irekiko" ekimen bat da, Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailarekin lankidetzan sustatu dena. Berrikuntza Irekiko esperientzia aitzindaria da, eta bere helburua da MONDRAGONeko enpresetan negozio aukera berrien sorrera, dibertsifikazioa eta hobekuntza lehiakorra bultzatzea, Lankidetzaren bidezko Berrikuntzaren bitartez.

**IK4-Ideko** industri fabrikazioko eta ekoizpeneko teknologietan espezializatuta dagoen zentro teknologikoa da, eta bere 25. urteurrenaren urtean 7,7 milioi euroko

zifra lortu zuen sarreretan. Horietatik 5,1 milioi eskaripeko proiektuetatik etorri dira, eta 2,5 milioi hainbat administrazio publikorentzat egindako ikerketa proiektuetatik.

2011n SCI aldizkarietan (Science Citation Index) 12 argitalpen erregistratu zituen, europar patente bat onartzea lortu zen eta beste bi patente eskatu ziren, horiek ere europar eremukoak.

2011n zehar I+Gko lankidetzaren hitzarmenak ezarri ditu, 2 milioi euro inguruko zenbateko batekin, Makina-erremintaren eta Fabrikazio Teknologien esparruan erreferentzia-koak diren 4 enpresarekin, kasu horietako bitan espezializazio sektorialerako orientazio nabarmenarekin.

Nazioartean Fabrikazio Teknologietan duen kokapen ona CIRPen (International Academy for Production Engineering) eta EUSPENen (European Society for Precision Engineering and Nanotechnology) duen presentziarekin bermatzen da, eta aktibo dauden 13 europar proiekturen bidez, horietatik 5etan liderra izanik.

Elgoibarren dago, langile taldean 107 pertsonak parte hartzen dute, horietatik 18 doktoreak eta 8 doktoregaiak, eta bere jarduera bi eraikinetan banatzen du.

"Fabrikazioko teknologietan" espezializatuta egonik, bere jarduera ikerketa proiektutan zein industriaren eskaripean gauzatzen da, bere 8 ikerketa

ildoetan jasotako gaien inguruan: Berrikuntza estrategikoa, Ekoizpenaren kudeaketa, Diseinu mekanikoa, Software adimenduna, Fabrikazio prozesuak, Makinen dinamika, Ikuskaritza eta neurketa, eta Mikroteknologia eta ultradoitasuna.

IK4-Ideko IK4 aliantza teknologikoko kidea da, Azterlan, Cidetec, Ceit, Gaiker, Ikerlan, Lortek, Tekniker eta Vicomtech zentroekin batera.

**IK4-Lortek** lotura eta konexio teknologietan espezializatutako zentro teknologikoa da. 9. urteko historia duela, IK4-Lortekek etengabe garatzen jarraitzen du, teknologia horien abangoardian egoteko.

3 milioi euro baino gehiago fakturatu ditu, eta horietatik % 70 kontratupeko I+Gko jarduerari dagozkie, eta % 30 ikerketa proiektuei, hainbat erakunderen laguntzarekin.

Inbertsioen alorrean, 2001ko ekitaldiaren ezaugarria izan da eraikin berri bat jaso dela, hori ere Ordizian dagoen Goierri Berrikuntza Gunean kokatuta (Gipuzkoa).

IK4-Lortekek, 2011ren itxieran, 44 pertsona zituen, horietatik 7 doktoreak eta 2 doktoregaiak. 18 argitalpen egin ziren, horietatik 7 ISI (Informazio Zientifikorako Institutua), eta PCT patente bat eskatu da (Patent Cooperation Treaty), osasunaren sektorerako inplanteen arloan.

## 1\_4 EZAGUTZA ARLOA

---

Halaber, lankidetzaren hitzarmenen esparruan, IK4-Lortekek 4 lankidetzaren hitzarmen berri izenpetu ditu enpresekin, loturako prozesuei eta prozesuen simulazioari lotutako gaietan.

Proiektu aipagarrien artean “MERLIN” proiektua nabarmen daiteke, Europako VII. Esparru programaren testuinguruan, etorkizuneko fabrikazioko teknologietara bideratuta, aeronautikaren eremuan; “AC-LC” proiektua, laser prozesuen online kontrolera zuzenduta, eta EUSKESTUR proiektua, Etorgai programaren barruan, zeinean IK4-Lortek hegazkinetako motorren etorkizuneko egitura erradialak fabrikatzeko prozesuen simulazio birtuala egiteaz arduratzen den.

### Enpresen I+G unitateak

---

**Aotek**, automatizazioan eta optikan dihardu, eta bere helburua Fagor Automazionek garatu eta fabrikatutako produktuetan integratuta dauden teknologien bikaintasuna lortzea da: kontrol numerikoak, erregulagailuak eta kokapena atzitzeko sistemak.

2011n, Fagor Aotek, besteak beste, hainbat ikerketa proiektutan lan egin zuen, horien artean egonik: FP7koa den CHAMELEONen europar proiektua, makina-erreminta polibalenteak lortu nahi dituen, gailu adimendun erabileraren bitartez; IMPELER, CDTI proiektua, makina-erreminta handien

funtzionalitateak handitzeko; FORE, INNFACTO programako proiektua, substratu metalikoetan gaineko patroierretikulak grabatzeko eta irakurtzeko; MANUFACTURING 0.0 II, PROFUTURE eta PROFUTURE II proiektuak, ETORTEK programaren barruan eta CIC MARGUNErekin lankidetzan, mekanizazio prozesu berriak ikertzeko, zorrotzagoak, azkarragoak eta energetikoki eraginkorragoak izan daitezten, eta makina-erreminta ez konbentzionalak garatzeko, eramangarriak eta zorrotzak, mekanizatu beharreko piezaren geometriara egokitzen direnak, eta “Sistema txertatu fidagarriak”, SAIOTEK programaren barruan.

**Edertek** automoziorako osagaiak egin eta muntatzeari lotutako fabrikazioteknologietan espezializatuta dagoen zentro teknologiko bat da, eta bere helburu nagusia Fagor Ederlan Taldearen eta bere bazkide erabiltzaileen berrikuntza teknologiko beharrei erantzutea da.

2011. urtearen ezaugarria izan da IMan (Industrializazioko Modulu Aurreratua) baliabideak handitu izana, grabitatezko maskor makina bat eta labe birakari bat gehitu baitira, material eta prozesu berrietan hainbat ikerketa proiektu garatzeko oinarria izango direnak. Ildo horretan bertan, mugari garrantzitsua izan da baita ere laborategi metalografiko bat jarri izana, ekipamendu aurreratuekin, hala nola:

deskarga lumineszenteko espektrometro bat, indar atomikoko mikroskopio bat nanomaterialen analisirako, edo tomografia eta X izpiko ekipamendu berritzaile bat.

**ETIC etxeak** “Cloud Computing”-i konektatutako Sistema Adimendun esparruan lan egiten jarraitzen du, “Internet of Things” paradigmatari helduta.

Aplikazio berriak zerbitzu banatuen gainean osatzen dira, horiek elkarrekin konektatuta eta sareko sistema anitzetan kokatuta daudelarik. Sistema berri horiei Sistema Adimendu esaten zaie, testuinguru bakoitzetik datu eta informazio ugari atzitzea ahalbidetzen dutelako eta, aldi berean, ingurunearen gainean eta erabiltzailearekin elkarrekin jardutea.

Sistema Adimendu berriek sentsorizazio, ekintza eta interakzio funtzionalitateko konbinazioak betetzen dituzte eta, gainera, Sarera konektatuta daude, Internetera, “Gauzen Internetan” delako paradigma osatuz. “Gauzen Internetean” dena konektatuta egongo da, eguneroko bizitzako edozein objektu objektu adimendun bihurtuko da, informazioa eman, erabakiak hartu, ingurunean jardun eta erabiltzailearentzako komunikaziorako bide izango dena. Horrenbestez, edozein ingurunetan aplikazio eta zerbitzu berriak sortzeko aukera ugari zabaltzen dira: etxea, bulegoa, hiria, merkataritza gunea,

ospitalea, hotela, etab. Aplikazio askotarako datu erabilgarri asko eta asko sortu dira, ostatatu egin beharko direnak eta edozein leku eta gailutatik eskuragarri egongo direnak. Hori guztia Cloud Computing-i esker lortuko da.

ETICek Europako hainbat proiektutan parte hartzen jarraitzen du, eta hasita dauden Artemis eta ITEA2 proiektuez gain, 2011ko amaieran AAL proiektu berri batean hasi zen lanean (Ambient Assisted Living).

**Fagor Hometek** Fagor Etxetresna Elektrikoen Taldeko I+G+b unitate enpresariala da. Berez 2005ean sortu zen, Espainiako unitate estrategikoari lotutako berrikuntza unitate gisa, eta aldi berean matrizea europar talde bihurtzeko prozesua egin zelarik, Fagor Hometek ere nazioarteko izaera hartu zuen unitate bihurtu zen. Egoitza nagusia Arrasaten dago (Gipuzkoa), Fagor Etxetresna Elektrikoen egoitza nagusiaren ondoan. Bere pertsonak eta instalazioak taldearen bateko eta besteko kokapenetan daude (Arrasate; Lyon, Orléans eta La Roche sur Yon, Frantzia; eta Wrocław, Polonian).

Fagor Hometeken jardueren barruan nabarmentzen dira:

- Fagor Etxetresna Elektrikoen Taldearen Berrikuntza Plana kudeatzea eta dinamizatzea.



## 1\_4 EZAGUTZA ARLOA

- Interes estrategikoko arloetan ikerketa sustatzea eta aktibatzea.
- Taldearen berrikuntza proiektuak kudeatzeko koordinazioa eta aholkularitza (Taldearen PMOaren parekoa, Project Management Office).
- Taldearen berrikuntza sarea koordinatzea.
- Berrikuntza eta ikerketa proiektuak egitea.

Jarduera horien bitartez, Fagor Hometek, alde batetik, espezialista da berrikuntzaren eta ikerketaren eremuan, eta, bestetik, nazioarteko zeharkakotasuna lortzen du, Taldearen negozio guztietan txertatuta.

Fagor Etxetresna Elektrikoen Taldearen berrikuntza planeko proiektuen katalogoa Fagor Hometeketik gestionatu eta aholkatzen da. Katalogo hori matrizearen gurutzaketatik sortzen da, Produktuaren Balio Erantsiaren (bertikala) eta produktu horiei lotutako lehentasunezko Teknologien artean. Sektorean zeharkako teknologia estrategikotzat jotzen direnak hauek dira:

- IKT: kontrolean, kalitatean, interakzioan eta erabilerraztasunean duten eraginagatik.
- Akustika eta Bibrazioak: bereziki konfort akustikoan, eta oro har hautemandako kalitatean duen eragin zuzenagatik.



- Termofluidika: etxeko aparatu guztien kontsumo energetikoan duen eraginagatik.
- Nutrizioa eta higieena: etxeko gailuek lortu nahi duten efektuan eragiten du zuzenki.
- Antropologia: azkenean erabiltzaile mota bakoitzak hautematen duenak baino balio ez duelako.

Estatuko, Europako eta erkidegoko I+G+b-ko programek abalatu eta babestu dituzten proiektu garrantzitsuenen artean hauek nabarmen daitezke:

- SEILA (CENT-liderra). Etorkizunean arropa modu iraunkorrean tratatzeko teknologien gaineko ikerketa (garbitzea baino gehiago).
- FOCUS (INNFACTO). Airearen tratamendurako kontzeptu berrien ikerketa eta garapena.
- KERS (INNFACTO). Hozkailuen eta bere osagaien azterketa, modelizazioa eta diseinua, elikagaiak eta edariak baldintza egokietan eta modu optimizatuan kontserbatzeko, kontsumo energetikoak optimizatuz.
- HOUSGAI (Etorgai). Pertsona adinduei etxean osasun laguntza emateko zerbitzuen ikerketa.
- PRICE (INNFACTO). Hiri adimendunetan

energiaren kudeaketa adimenduna ikertzeko proiektua.

**ISEA.** Business Acceleration Center (BAC) ISEA S. Coop.eko lankidetzaren bidezko enpresa ekimenak abiarazteko egitura espezializatua da, eta 2010ean **MONDRAGONeko Gestio Eredu Korporatiboaren "Praktika onaren"** aipamena lortu zuen, eta MISE Dibisioan jarraitu zuen garapena, eta MONDRAGONeko Sustapen Zentroaren euskarrirako egitura gisa.

2011ko ekitaldiak MONDRAGONeko BAC abiarazten eta finkatzen parte hartu du, eta MISEren sei proiektuen dibisionalaren jarraipena egin du, Dibisioko kooperatibei euskarria emanez bateko eta besteko negozioetan berrikuntzarako laguntzak eta diru laguntzak bilatzeko.

Eusko Jaurlaritzaren eta MONDRAGON Korporazioaren lankidetzarekin, "MONDRAGON OPEN INNOVATION"

Berrikuntza Irekiko esperientzia aitzindaria jarri du martxan, eta bere helburua da MONDRAGONeko enpresetan negozio aukera berrien sorrera, dibertsifikazioa eta hobekuntza lehiakorra bultzatzea, Lankidetzaren bidezko Berrikuntzaren bitartez.

**Koniker** irabazi asmorik gabeko zentro teknologiko bat da, onura publikokotzat deklaratu, konformazio eta mihiztadura prozesuei lotutako teknologia berrien ikerketan eta garapenean espezializatua.

2011n zehar garatu dituen ikerketa ildo nagusiak honako hauek izan dira:

- Artekatzeko makinaren gama zabaltzea, sektore elektrikorako.
- Boro bidezko Altzairuen beroko konformazioa.
- Autobuseko alboko pieza handiak fabrikatzeko estrategia berriak.
- Sektore eolikorako eta aeronautikorako instalazioak.
- Panel fotovoltaikoak ekoizteko sistema integratuak.
- Medikamenduak nahasteko makineria berria.
- Moldeaketa bertikaleko lineetako plaka automatikoen trukatzailerako kontrola.

Horrekin batera, ELKARWEB – Web teknologia sozial eta semantikoen proiektuan aurrera egin da, Lankidetzaren bidezko Berrikuntzaren euskarri gisa.

**Maier Technology Centre (MTC)** automozioaren eta etxetresna elektrikoaren sektoreetarako piezen eta multzoen ikerketan, garapenean eta apainduraren espezializatuta dago, eta ingeniariaren arloan lan egiten du, bere bezeroekin elkarlanean arituz.

## 1\_4 EZAGUTZA ARLOA

---

2011ko ezaugarri nagusia bezeroarengan zein merkatuan lortu duen arrakasta izan da, azken urteetan I+Gan egindako ahaleginetik berrikuntzaren arloan egin duen proposamenagatik. Ekitaldian lan karga handia izan da, proiektu ugari esleitu baitzaizkio, eta ondorioz bezeroen multzo oso dibertsifikatua lortu du, hainbat teknologia eta produkturekin.

Gainera, 2011. urtean ikerketa, garapen eta berrikuntza proiektu aipagarriak garatu dira, 2. Plan Teknologikoaren hirugarren urtea izanik.

Halaber, 2011ko martxoan, MTCK bere instalazioak zabaltzeko lanak amaitu zituen, berrikuntzarako gune berriak sortuta.

2011n, era berean, MTCK estetikaren hornitzaile gisa duen rola irmoki sustatu du, bezeroarenganako orientazio argiarekin.

Azkenik, urtean zehar berrikuntzaren arloan hainbat errekonozimendu lortu dituela azpimarratu behar da, horietan garrantzitsuena Maier 2011ko euskal enpresa berritzaile moduan egiaztatzen duena.

**Orona eic.** 2010ean egindako hausnarketa estrategikoak Orona eic zentroaren (Elevator Innovation Center) apustua indartu zuen hurrengo 4 urteetarako, eta horren oinarrian dago epe luzerako ikerketara zuzendutako ahalegina datozen lau urteetan % 57 handitzea.

2011ko mugarri nagusietakoa ORONA IDEO-innovation city berrikuntzaren hiriarren obrak hastea izan da; lehenengo fasea 2014an inauguratuko da, eta hiru eraikinak aldi berean eraikitzen hasi dira:

- Orona Zero eraikina, egoitza korporatiboa eta Orona EiC bera hartuko dituen.
- Orona Fundazioa, Mondragon Unibertsitatearen kokagunea izango dena.
- 3A eraikina, IK4-Ikerlan hartu duena.

Gainera, berrikuntzaren hiri hori beste zentro eta unibertsitate batzuei irekitako gunea izango da.

Espazio horretako funtsezko gaietako bat energia izango da: energia metatzeaz gain, eraikinaren kudeaketa energetikoa landuko da, eta gai horrek espazio berezi bat izango du A3 eraikinean, gune partekatu batean teknologia berri horiek landu ahal izateko, azpiegiturarik modernoekin hornituta.


Energia metatzeko eta kudeatzeko sistemak ikertzeko ildo hori lehenagotik zeuden ildo tradizionaleri gehitzen zaie: tribologia, bibroakustika, kontzeptu berriak, makina eta bihurtailuen diseinua, elektronika eta komunikazioak, mantentze lanen bikaintasunera zuzendutako M2M sistemekin batera.

**CS Centro Stirling S. Coop.ek** bere garapen ildoak finkatzeko zereginen jarraitzen du. Jarduera aipagarrienen artean aipa daitezke EHEren produktua hobetzeko garapenak; EHE etxeko mikrokosorkuntzako dispositiboan fabrikatzailea da, eta Europan bere segmentuko liderra da. Garapenei esker ekipamenduaren eraginkortasuna % 15 hobetu da. Halaber, ENERKIT marka komertzial bat sortu da, baita termoelektrizitateari lotutako patente bat ere, 2012an zehar sentsorika banatuaren eta doitasunezko hozkuntzaren arloan soluzio berritzaileak lantzea ahalbidetuko duena.

Ezagutza lortzeari eta teknologia propioak garatzeari dagokienez, 2011n Etorgai proiektu batean parte hartu du, osasunaren arloan, baita Europako proiektu batean ere, energia iraunkorren esparruan, eta proiektuaren lider teknologikoak Mondragon Osagaiak eta Stirling Zentroa izan dira.

Nabarmendu beharreko mugarri bat izan da egoitza Aretxabaletako (Gipuzkoa) instalazio berrietara aldatzea: ikerlarietara utzitako azalera bikoizteaz gain, laborategi bat ere badago, garatutako dispositiboetara buruzko esperimenduzkoak egin ahal izateko.

Azkenik, langile taldeari ikerketako formazioa emateko apustu handia egiten ari da (3 doktore eta 3 doktoregai), Mondragon Unibertsitatearekin; Oviedoko



## 1\_4 EZAGUTZA ARLOA

---

Unibertsitatearekin eta Alemaniako Reutlingeneko Unibertsitatearekin batera.

**ULMA Packaging Technological Center**, packagingaren sektorerako teknologiararen ikerketan eta garapenean espezializatutako zentroa da, eta 2009. urtean definitutako planean estrategikotzat hartu ziren arlo teknologikoak bultzatzera zuzendu ditu bere ahaleginak; halaber, nazioarteko lankidetzan proiektuetan parte hartzea lortu du, esaterako, Suitza, Italia eta Japoniarekin.

2011n egindako lanaren ondorioz aurrerapen handiak egin dira ekipamenduaren diseinuan, produktu berriak merkaturatzeko prozesuan diseinu higienikoaren kontzeptuak sartzeko metodologia propio batean oinarrituta, prozesuak automatizatzeko sistema txertatuetan oinarritutako teknologien erabileran, eta ikusmen artifizialeko eta robotika jabeko sistemak ontziratzekeo sistemetan integratzeari dagokionez.

**MIK - Mondragon Innovation & Knowledge** I+G+b-ko zentro bat da, enpresa eta gizarte berrikuntzaren kudeaketan espezializatua. 2011n sortu zen, enpresen lehiakortasunean eta garapenean laguntzeko, eta bere jarduera eremuak I+G+b-ko lau lerro ditu: Enpresa Irekia, Ekintzailtza, Nazioartekotzea eta Enpresa Eredu Sozialki Arduratsuak.

2010-2011 ekitaldian 27 ikasle izan ditu Doktoretza programan matrikulatuta,

eta, gainera, bere ikertzaileek egindako ikerketa eta sortutako ezagutza mundu mailako komunitate zientifikoan ospe handia duten kudeaketa foroetan ezagutarazi dira.

I+G+b proiektuei dagokionez, MIK aktiboki parte hartzen ari da I+G+b-ko 40 proiektutan, zeinetan EAEko 100 enpresak baino gehiagok diharduten. Aipatzekoa da Europako lau proiektutan duen partaidetza, horietako bitan liderra MIK izanik. Parte hartzen duen beste ekimen garrantzitsuetako bat Openbasque ikerketa estrategikorako proiektua da: liderra MIK da, eta IK4-Ikerlan, Tecnalia eta UPV/EHUrekin lankidetzan garatzen ari da; horiez gain, Fagor Etxetresna Elektrokoak, CAF, Euskaltel, Obe-Hettich, Orbea, Gureak Taldea edo Eroski Taldea bezalako enpresek ere parte hartze aktiboa dute.

MIKek Gipuzkoako Oñati eta Irun herrietan ditu egoitzak, eta Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko kidea da.



MONDRAGONeko Zentro teknologiko eta  
I+G unitateen kopurua 2011n

Izena	Aurrekontua (milioi €)	Pertsonak
Aotek	2,8	29
C. S. Centro Stirling	0,62	10
Edertek	4,5	32
ETIC	0,6	11
Hometek	3,5	47
IK4-Ideko	7,7	107
IK4-Ikerlan	21,85	250
ISEA	1,05	11
Koniker	1,60	26
IK4-Lortek	3,1	44
MTC	7,5	110
Orona eic	2,5	67
UPTC	2,4	33
MIK	1,80	45
<b>GUZTIRA</b>	<b>61,52</b>	<b>822</b>

## 1\_4 EZAGUTZA ARLOA

---

### Garaia Berrikuntza Gunea

---

Euskadiko Etxearen Klusterrak sustatuta (ACEDE), LIVING-LAB laborategi bat jarri da martxan, hau da, erabilgarritasun laborategi bat, zeinean balioztatze prozesuak egiten diren, benetako erabiltzaileekin, etxeko produktu edo zerbitzuetan gehitutako garapen teknologiko berriek duten harrera soziala baloratu ahal izateko eta, azterketa horren bitartez, produktu edo zerbitzu berriak asmatu ahal izateko.

Halaber, Korporazioko kidea den enpresa berri bat ere aipatu behar da:

**Galbaian S. Coop.:** enpresa horrek jabetza industrial eta intelektualerako zerbitzu integrala eskaintzen du, eta bertan 14 pertsonak dihardute.

Bere jarduera propioaren barruan, eta Garaia Guneak eskaintzen dituen zerbitzuen jarduera osagarri moduan, hainbat ikastaro, mintegi eta enpresa harremanetarako ekintzak nabarmen daitezke, teknologia eta ezagutzaren transferentziara, enpresa berritzaileak eratzera eta indartzera, berrikuntza finantzatzera eta nazioartekotzera zuzenduta.

Horrez gain, Garaia Enpresa Digitalaren, Euskaliten eta Innovanet sareari lotutako jarduerak azpimarratu behar dira, Euskadi + Innova programaren barruan, guztiak ala guztiak Eusko Jaurlaritzak sustatzen





duen informazioaren gizartearen ekimenaren esparruan sartuta; ekimenak 10.000 pertsona inguru erakarri ditu eta, horrenbestez, Gunea benetako topagune bihurtu da.

## Mondragon Unibertsitatea

2010-2011 ikasturtean zehar, Mondragon Unibertsitateak (MU) Europako Goi Mailako Hezkuntza Esparrura egokituta eskaini ditu bere titulazio guztiak, hau da, 11 gradu, Arrasate, Goierri, Eskoriatza, Oñati eta Bidasoko campusetan banatuta.

Ingeniaritzaren arloan diploma bikoitzak ere eskaini dira, guztiak Frantziako unibertsitateekin lankidetzan. Zehazki, unibertsitate horiek dira Tolosako Enseeiht eta Insa, Nantesko ECN eta Grenobleko INP.

Graduondoko ikasketek dagokienez, 2010-2011 ikasturtean 3 master ofizial berri ezarri dira. Horrez gain, 2011-2012an martxan jartzeko titulu berrien diseinua landu da. Horrekin guztiarekin, graduondoko eskaintzan 5 master ofizial eta 15 titulu propio daude, eta hori etengabeko prestakuntzarako dagoen eskaintza zabalari gehitzen bazaio, azkenean 20.000 formazio ordu baino gehiago ateratzen dira.

2010-2011 ikasturtean MUn guztira matrikulatuta egon diren ikasleak 3.610 izan dira, eta horietatik 3.018k gradu

unibertsitate ikasketak egin dituzte, eta 592k hirugarren zikloko eta graduondoko ikasketak; azken horietatik 98 ikasle MUko doktoretza programetakoak dira.

2010-2011 ikasturtean 764 ikasle praktikak egin dituzte enpresetan, eta ikasleek egindako karrera amaierako lanetan 386 proiektu garatu dira. Enpresek karrera amaierako proiektu horiei buruz adierazi duten gogobetetze maila 10etik 8,5 izan da.

Halaber, 2010-2011 ikasturtean titulazio berrien diseinua landu da, eta horiek 2011-2012 ikasturtean jarri dira martxan, tartean egonik Gastronomia eta Sukaldaritzako Arteen Gradua eta honako unibertsitate master hauek: Enpresa berrikuntza eta proiektuen zuzendaritza, Industri ingeniari, Sistema txertatuak eta Energia eta potentziako elektronika.

Nazioartekotzearen inguruan, ikasleen zein irakasleen mugikortasunak nabarmen handitzen jarraitzen du. 2010-2011 ikasturtean zehar, 220 ikasle atzerriko unibertsitateetara abiatu dira, eta horietatik 139 ikasle ikasketak osatzeko mugitu dira, eta 81 ikasle atzerriko enpresetan praktikak egiteko edo karrera amaierako proiektuak garatzeko. Halaber, 2010-2011 ikasturtean MUko campusetan 65 ikasle atzeritar aritu dira; aurreko ikasturtean 47 izan ziren gurean izandako ikasle atzeritarrak.

## 1\_4 EZAGUTZA ARLOA

MUn garatzen den I+G jarduerak ezagutza berria sortzetik harantzago joan nahi du, izan ere, ematen dituen karreretak prestakuntza eta berrikuntza zerbitzuak helmugako arloan edo eremuan aplikatu ahal izatea nahi du, hau da, hori eskatzen duten erakunde eta enpresetan bertan. Finean, unibertsitatearen iritziz, irakaskuntzaren kalitatea handitzeko eta bere konpromiso soziala betetzeko modurik eraginkorrena bere hiru jarduerak integratzea da, hau da, irakaskuntza, ikerketa eta transferentzia.

Lankidetzaren bidezko ikerketaren eredu horren oinarrian dago ikerketa eta lankidetzaren bidezko parte hartzea uztartzea, hiru eragile nagusiekin: Unibertsitatea, Zentro teknologikoak eta Enpresak.

Ikerketa jarduerarekin estuki lotuta, Hirugarren zikloa garatzeko egindako ahalegin handia aipatu behar da. 1997-2011 aldian Mondragon Unibertsitatean doktoretza egiten aritu diren ikasleen kopuruak oso bilakaera positiboa izan du, eta 2010-2011 ikasturtean 109 doktoregai egon dira, eta 16 tesi irakurri dira.

Administrazioek finantzaturako programetan egindako jarduerak ikertzaile oso pozgarria izan da. Aipatzekoak dira ikerketa estrategikoko Eusko Jaurlaritzako Industriako 6 proiektutan izandako parte hartzea, Eusko Jaurlaritzako Industriako 15 Etorgai proiektu, MICINNe 9 INNPACTO

proiektu eta MICINNe 13 CENITT proiektu.

Mondragon Unibertsitatearen ikerketa gero eta internazionalagoa da, eta horren bermea da nazioarteko zein estatuko hainbat proiektutan parte hartzea. Gaur egun, Europar Batasunaren menpeko 8 ikerketa programatan parte hartzen ari da.

Ekintzaitzaren esparruari dagokionez, orain dela 5 urte MUK plan integral bat abiarazi zuen, MONDRAGON EKITEN, ikasleen eta irakasleen artean ekintzaitza sustatzeko, enpresa proiektuen sustapenaren bidez enplegua sortzeko eta lehiakortasuna hobetzeko helburuarekin.

MONDRAGON EKITEN ekimeneko jarduerak dira, esaterako, 2010-2011 ikasturtean ekintzaitza sustatzeko antolatutako V. Topaketa, Enpresa Ideia Berrien V. Lehiaketa, Landa Garapen Iraunkorrerako Ideia eta Proiektuen II. Lehiaketa, eta Gazteen Aisialdi eta Kirolerako Ideien I. Lehiaketa. Azken bi horiek Debagoieneko eta Debabarreneko landa garapenerako agentziekin eta KIMU BERRIekin lankidetzan egin dira, hurrenez hurren.

Amaitzeko, 2010-2011 ikasturtean zehar, MUK hainbat proiektu estrategikori ekin die, hala nola:

- Basque Culinary Center, instalazioak 2011-2012 ikasturtearen hasieran inauguratu dituenak, eta gastronomia



eta Sukaldaritzako Arteen Graduaren lehenengo promozioa.

- Enpresa Zientzien campus berria: obrak 2008-2009 ikasturtean egiten hasi ziren, Oñatiko Unibertsitate eta Teknologia Hiri berrian, eta 2010-2011 ikasturtean jarri zen martxan.
- Elektronika eta sistema txertatuei buruzko ikerketa eta berrikuntza teknologikorako zentroa: obrak



halaber 2008-2009 ikasturtean egiten hasi ziren, eta 2010-2011 ikasturtean inauguratu zen, MUko ikasturtearen irekiera ofiziala eta eraikinaren inaugurazioa aldi berean eginez. Bere helburua ikerketa eta transferentzia teknologikorako talde bat garatzea da, energiari eta sistema txertatuei aplikatutako elektronikaren arloan mundu mailako erreferentia izateko.

- Humanitateen eta Hezkuntza Zientzien Fakultatearen ezarpen berria Aretxabaletan (Gipuzkoa); proiektua 2009-2010 ikasturtean lantzen hasi zen, Aretxabaletako Udalaren lankidetzeta sendoarekin. 2010-2011 ikasturtean zehar kokapen berria garatzeko lanek jarraitu dute, ikus-entzunezko komunikazioaren arloa kokatzeko. Obrak 2011-2012 ikasturtean zehar bukatuko dira, eta egoitza berria

2012-2013 ikasturtean jarriko da martxan.

- 2010-2011 ikasturtean zehar bultzatu diren proiektu estrategikoetako beste bat Mondragon Unibertsitatearen online proiektua izan da: formatu horretan 7 ikastaro eman dira, graduak, masterrak, ikastaroak eta "in company" formazioa kontuan hartuta, eta guztira 132 ikaslek parte hartu dute.

## Beste hezkuntza zentro batzuk

**Politeknika Ikastegia Txorierrri** ikastetxeak 2010-2011 ikasturtean 394 ikasle hartu zituen, Lanbide Heziketaren barruan, eta Enplegurako Prestakuntzarako 51 ikastaro eman zituen (2.401 ordu), 443 pertsonaren parte hartzearekin, aktibo dauden langileen zein langabezia dauden pertsonen artean. Ildo horretan, 13 enpresarentzat neurri egindako beste hainbeste ikastaro antolatu eta garatu direla nabarmendu behar da, Soldadura, CNC, CAD-CAM-CAE, Egiaztapen eta Moodle bezalako hezkuntza plataformen arloetan, besteak beste.

Nazioartearen eremuan, 18 ikaslek praktikak egin zituzten Europako enpresetan (Herbehereak, Erresuma Batua, Irlanda, Italia, Txekiar

## 1\_4 EZAGUTZA ARLOA

---

Errepublika, Portugal eta Lituania). Halaber, azpimarratu behar da zentroak hezkuntza sistemak hobetzera zuzendutako alde askotako proiektuetan parte hartu duela, hizkuntzaren, kulturaren eta produktuen/prozesuen arloko berrikuntzen transferentziaren bidez (irakasleen gaitasun interkulturalen edo enpresa trebetasunen hobekuntza (coach), errekonozimendu akademikorako sistemak bateratzea...). 15 herrialderekin baino gehiagorekin lankidetzan, Berrikuntzaren Transferentziako 7 proiektutan parte hartu da (TOI), "Leonardo Da Vinci" europar proiektuaren bitartez finantzatuta.

Ekintzailtzaren kulturaren eremuan, zentroak proiektu berri bat gehitu du bere enpresa haztegiari: ESS (Engineering Solutions and Services, S. Coop.), bere jarduera automozio eta aeronautikaren ingeniartzaren eremuan garatzen duen enpresa. Enpresa horrek, aurreko ikasturtean abiarazi zen Ardolanek bezala (urak analizatzeko zerbitzuak eta ingurumenekoak), zentroaren hainbat lokal eta ekipamendu dituzte bere esku erabilgarri. Horrez gain, Eusko Jaurlaritzaren edo Worklan Elkartearen (horren sustatzailea da) bezalako erakundearen bitartez, beste bederatzi enpresari eman zaie alta.

Berrikuntza eta Garapen Teknologikoa Lanbide Heziketarako Euskal Institutuarekin (Tknika) lankidetzan egin dira. Lankidetzaren horrek ahalbidetu

du bi ikastetxeko bi irakasle hautatzea bi proiektutan parte hartzeko helburuarekin: "Mekanizazioko Amarratzeko tresneria" eta "Telebistako teknologia berriak": 3D eta Bereizmen Handia".

**Lea Artibai Ikastetxeak (LAI)** 2010-2011 ikasturtean batxilergoko 5 talderi eman die prestakuntza arautua, erdi mailako eta goi mailako 16 formazio ziklo eman ditu, eta 66 ikasle egin dituzte praktikak enpresetan. Goi mailako formazio zikloetan sartzeko prestakuntza ikastaroak eskaini ziren, eta "Material polimerikoetako injekzio bidezko moldeen diseinua" izeneko ikastaroa eman zen, Tknikak eskatuta, Fabrikazio Mekanikoaren Diseinuaren zikloko bigarren mailako prestatzailerentzako formazio gisa. Halaber, LAIko hiru prestatzaile KEI/IVACekin lankidetzan aritu dira arlo mekanikoko eta elikagaien industrietako formazio zikloetako Oinarrizko Curriculumen Diseinuan.

Nazioartekotzearen esparruan, 8 ikasle praktikak Europako enpresetan egin dituzte, Erasmus eta Leonardo beken laguntzarekin, eta TOI europar proiektua prestatzen parte hartu da, lanbide heziketako kredituen sistemari buruz.

Horrez gain, polimeroen ingeniartzako 9 ikasle karrera amaierako proiektua aurkeztu dute, eta horietako 2k Alemaniako Fraunhofer Institute





## 1\_4 EZAGUTZA ARLOA

---

ikastetxean garatu dituzte. “MSc. Plastic Product Design” masterrari dagokionez, master amaierako lehenengo tesinaren defentsa egin zen eta Alex Arrillagak “Modelling vulcanization and rheological processes during injection moulding of rubber mixes using CAE” izeneko tesia aurkeztu eta London Metropolitan Universityren Europako lehenengo Doktoretza lortu du.

Etengabeko prestakuntza eta prestakuntza okupazionalen, 1.723 pertsonari 8.076 ordu eman zaizkie, eta enpresetan praktikak antolatu dira, 69 pertsonaren partaidetzarekin. Hainbat ikastaro online jarri dira martxan, guztira 820 orduko iraupenarekin, eta nabarmentzekoa da “Supply Chain Management, Logistika Integrala eta Ekoizpena” ikastaroa, Renault Consultingekin lankidetzan, hurrengo ikasurtean ere berriro egingo dena.

LAI LANBIDEren lankidea den heinean, 2.000 elkarrizketa indibidual egin dira, gutxi gorabehera 150 lan eskaintza gestionatu dira, eta datorren ikasurtean enplegurako zentro bat antolatzeko diru laguntza lortu da.

Ikerketa eta zerbitzu teknikoaren unitatea den Leartikerren Iberoeca proiektu bat lortu da, eta hainbat partzuergo eratu dira, hainbat enpresa eta zentro teknologikorekin batera, Europako proiektuak garatzeko.

Zenbait sektoretako enprekin dibertsifikazioaren inguruko 12 proiektu garatu dira, 5 ikerketa proiektu negozio edo jarduera berriak detektatzera zuzenduta, eta 10 proiektu dauden produktuak hobetzeko. Halaber, 20 bezero berriekin lan egiten hasi da, eta Leartikerren negozioaren bolumena milioi bat euro baino gehiago da. Azkenik, Leartikerrek plan estrategiko bat garatu du, eta horren muina definitutako misioan labor daiteke: Lea-Artibai eskualdean osasunaren sektoreari lotuta jarduera ekonomiko berria eta balio erantsiko enplegua sortzea bultzatzea eta babestea.

### Otalora

---

Otalora-MONDRAGONeko Zuzendari eta Kooperatiba Garapenerako Zentroak eman zituen formazio saio eta programetan 5.000 pertsona inguruk parte hartu zuten.

Heziketa Kooperatiboaren arloan, beste urte batez, Heziketa Kooperatiboko programetan parte hartzeko taldeen ugaritasuna nabarmen daiteke (organoetakoak, zuzendariak eta bazkideak), baita kontseilu Errektoreentzako eta bazkide berrien eta gerenteen harrerarako saioak ere.

Zuzendarien Garapenari dagokionez, MBA Executive eta IKAS programaren

edizio berri bat jarri zen martxan, eta arloetako arduradunentzako formazio bereziko saioak egin ziren. Halaber, Kultura Garapenean erakundeen kulturari buruzko hainbat inkesta egin ziren.

Lidergoaren eta Talde Lanaren arloari dagokionez, guztira 38 taldek parte hartu zuten horrelako programetan, eta kooperatibetako 61 zuzendarik coaching saioetan parte hartu zuten.

Hedapen Kooperatiboaren arloan, NBek 2012. urtea Kooperatiben Nazioarteko Urtea deklaratzeko hartutako erabakia mundu osoan zabaldu zuela eta, gure Esperientzia Kooperatiboa ezagutzeko interesa nabarmen handitu zen, eta MONDRAGONera hurbildu ziren 136 bisitari talde hartu ziren eta MONDRAGONi buruzko 20 hitzaldi eman ziren hainbat ekitaldi nazionaletan zein internazionaletan.

Azkenik, aurreko urteetan bezala, 400 Foroaren beste edizio bat egin zen, Korporazioko zuzendarientzat, eta bertan 430 pertsonak parte hartu zuten; halaber, Arantzazu Foroaren beste edizio bat ere egin zen, pertsonaleko zuzendariari zuzenduta, eta 110 pertsonak parte hartu zuten.





32.454



14.832 mill. €



2



**EGOERA ORRI EKONOMIKOAK  
ETA ONDAREARENAK**

83.569



Atal honetan MONDRAGON Korporazioaren egoera ekonomikoari eta ondareari buruzko ikuspegi global bat emango da, aurreko ekitaldian izandako bilakaera erakutsiz. Informazio moduan, aipa daiteke jaulkipen publikoak dituzten sozietate batzuek Nazioarteko Kontabilitate Arauak aplikatuz lantzen dituztela beren egoera orri ekonomiko-finantzarioak, baina kooperatiba gehienek haietan oinarrituta dagoen Espainiako Kontabilitate Plana aplikatuz landu dituzte.

Aurkezten den informazioa Korporazioan dauden negozio guztien Balantze integratua da, eta azken bi urteetan negozio horiek sortutako Balio Erantsia ere erakusten da, saldoak eta barne mugimendu gurutzatuak garbitu eta gero.

### BALANTZEAREN BILAKAERA

MONDRAGONek 2011ko abenduaren 31n zuen Balantzean 32.454 milioi euroko baliabide administratuen bolumena zegoen, ekitaldian bertan -645 milioi euroko aldakuntza bat izan eta gero, % -1,9, termino portzentaletan.

Korporazioa osatzen duten Arlo handiei banan-banan erreparatu gero, ikusten da balantzea guztietan uzkurtu egin dela, bereziki Banaketaren Arloari dagokionez, horren aktiboak 589 milioi euroko murrizketa izan baitu, desinbertsioak eta kontsolidazioko doikuntzak egin eta gero.

MONDRAGONeko 2011ko abenduaren 31ko balantzearen partida bakoitzaren alderdirik aipagarrienak ondoren zehazten direnak dira:

### Aktibo finkoa

2011ren itxieran erregistratutako ibilgetua 6.927 milioi eurokoa zen, urtean zehar 390 milioi euroko murrizketa garbia izan eta gero (% 5,3).

Ekitaldiko inbertsioak gehienbat Industria Arloan egin dira, barne atonia handia izan bada ere 2011n 335 milioi euro inbertitu dituelarik. Banaketa Arloak, ordea, desinbertsioak erregistratu ditu, termino garbietan, estatuan zein Frantziako hegoaldean zenbait establezimendu saldu baititu. Aurreko ekitaldian guztira aplikatutako amortizazioei dagokienez, horiek 524 milioi euroan kuantifikatu ziren, hau da, % 9,9 gutxiago aurreko urtean konputatutakoari buruz.

### Aktibo zirkulatzaila

Aktibo zirkulatzaila dimentsiorik handiena duen atala da (25.526 milioi euro), eta 255 milioi euroan egin du atzera, % -1 termino erlatiboetan.

Partida honen bilakaera kontraktiboa izan da bai Industria Arloan bai Banaketa Arloan, 43 eta 217 milioi euroko murrizketekin, hurrenez hurren, bai Izakinen osagaian bai Zordunen saldoetan.

### Ondare garbia

Aurreko ekitaldiaren itxieran MONDRAGONeko Ondare Garbia 3.999 milioi eurokoa zen, kanpoko bazkideei zegokien zenbatekoa kontuan hartu gabe, horiek ere parte hartzen duten negozioen ondarearen parte baitira. Aipatu Ondare Garbi horretatik 1.855 milioi euro Kapital Sozialari zegozkion, eta gainerako 2.144 milioiak Erreserbei.

### Kanpoko bazkideak

Azken urteetan, MODNRAGON Korporazioak bateratu egin ditu barne hazkundera eta beste bazkide batzuekin lankidetzan garatutako enpresa berriak, bai merkatu nazionalean hedatzeko bai nazioarteko merkatuetan zabaltzeko.

Kanpo partaidetza horien zenbatekoa guztira 136 milioi eurokoa zen 2011ko abenduaren 31n, eta batez ere industri kooperatiben eta banaketa sektorekoen egoera orri bateratuetan integratutako sozietate partaidetuetan aurkitzen zen.

### Pasibo ez korrontea

Kooperatibek eta beren Sozietate Partaidetuek erabilitako luzerako finantzaketaren saldoa ere, zeina hirugarrenengandik datorren, uzkurtu egin da, eta aurreko ekitaldiarekin alderatuta 211 milioi euroko aldakuntza

## MONDRAGON Korporazioaren Balantzea

milioi euro

KONTZEPTUA	10-12-31		11-12-31		Urteko aldakuntza	
	Zenbatekoa	% banak.	Zenbatekoa	% banak.	Zenbatekoa	%
<b>AKTIBOA</b>						
Finkoa	7.318	22,1	6.928	21,3	-390	-5,3
Zirkulatzailea	25.781	77,9	25.526	78,7	-255	-1
<b>AKTIBOA GUZTIRA</b>	<b>33.099</b>	<b>100,0</b>	<b>32.454</b>	<b>100,0</b>	<b>-645</b>	<b>-1,9</b>
	Zenbatekoa	% banak.	Zenbatekoa	% banak.	Zenbatekoa	%
<b>PASIBOA</b>						
Ondare garbia	4.287	13,0	3.999	12,3	-287	-6,7
Kanpoko bazkideak	181	0,5	136	0,4	-46	-25,3
Pasibo ez korrontea	11.824	35,7	11.613	35,8	-211	-1,8
Pasibo korrontea	16.807	51,8	16.706	51,5	-101	-0,6
<b>PASIBOA GUZTIRA</b>	<b>33.099</b>	<b>100,0</b>	<b>32.454</b>	<b>100,0</b>	<b>-645</b>	<b>-1,9</b>

## 02 ESTADOS ECONÓMICOS Y PATRIMONIALES

izan du, ekitaldiaren amaieran 11.613 milioi euroan kokatzeraino.

Arlo guztiak uzkurto egin dira epe luzerako zorpetzeari dagokionez, baina Banaketa Arloan kontzentratzen da gehien jaitsiera, 185 milioi euroekin.

Bilakaera horrek MONDRAGON osoaren Maniobra Fondoa ia erabat egonkortzea eragin du, 2010aren alderatuta 153 milioi euroan murriztu baita, 8.821 milioi euro izateraino.

### Pasibo korrontea

Balantzearen partida honek 101 milioi euroko jaitsiera izan du 2011n, hau da, termino erlatiboetan % -0,6.

Izandako murrizketagatik Banaketa Arloa nabarmentzen da, 277 milioi euro jaitsi baita, zorra murrizteko politikaren aplikazioaren ondorioz.

### BALIO ERANTSIAREN BILAKAERA

MONDRAGONeko Balantzearen osagarri gisa, hurrengo taulan bere egoera ekonomikoen datuen osaera aurkezten da, azken bi urteei buruzkoak, Balio Erantsiaren banaketarako formatuaren arabera antolatuta.

MONDRAGONek 2011n sortutako Balio Erantsi totala 3.701 milioi euroan kuantifikatu da, % 1,1eko murrizketarekin aurreko urtean lortutako zenbatekoari buruz; hori batik bat Banaketa Arloari egotz dakioko, bertan aurreko urtean prezioen inguruan lehertu zen gerrak sarreren bolumena eta marjina murriztu baitzituen, balio erantsiari eraginez.

Balio Erantsiaren zifra osoari egin zaion ekarpenik handiena Industria Arlotik etorri da (1.818 milioi euro, guztizkoaren % 49), eta atzetik datoz Banaketa Arloa (% 35), eta Finantza Arloa (gainerako % 16a).

Langile Gastuak (2.399 milioi euro) aurreko urteko zifraren antzekoak dira, Industria Arloan % 5,6 hazi badira ere, bere jardueraren igoerarekin eta enpleguaren defentsarekin bat eginda, bereziki kanpo eskaerari esker, eta beste Arloek, berriz, barne merkatutarako orientazio handiagoa dutelarik, murrizketak egin dituzte langile gastuetan, oraindik ere barne doikuntzarako prozesuak garatzen ari dira eta.

Finantza Gastuei dagokienez, susperraldi txiki bat izan dute, 11 milioi euro gehiago izan baitira 2010. urtearekiko. Hazkunde global horren jatorria izan dira Banaketa Arloaren murrizketa handia izan dira (-104 milioi euro), zorpetzea murrizteko politikaren ondorioz, eta Finantza Arloaren eta Industria Arloaren igoerak (87 milioi euro eta 28 milioi euro, hurrenez hurren).

MONDRAGONek 2011n aplikatutako amortizazioen zenbatekoa 524 milioi eurokoa izan da, 58 milioi euroan atzera eginda (% 9,9 termino erlatiboetan). Industria Arloak kontabilizatu ditu amortizaziorik handienak, 298 milioi euroekin, guztizkoaren % 57, eta atzetik dator Banaketa Arloa (204 milioi euro, guztizkoaren % 39).



Adierazitako gastu horiek guztiak kendu eta gero, Emaizta Operatiboetara iristen gara, eta horien zenbatekoa 343 milioi euro izan da 2011. urtean; zifra ona dela esan daiteke, Espainiako ekonomiak aurreko ekitaldian izan duen portaera atzerakoa ikusirik, eta kontuan hartuta hori zama handia dela beren produktuak eta zerbitzuak bereziki etxeko merkatura bideratzen dituzten negozioentzat.

2010ean dagoeneko zuzkiduretara, horniduretara eta zergetara zuzendutako zenbatekoak handiak izan ziren (168 milioi euro), eta 2011n 218 milioi euro izan dira eta 2011ko ekitaldian emaitzak lortzea bereziki galarazi dute; ekitaldiaren emaitzak 125 milioi euro izan dira, eta azkenean ekitaldiaren hasieran espero baino erosoago gainditu ahal izan da kontrako egoera.

## MONDRAGON Korporazioak sortutako balio erantsia

miloi euro

KONTZEPTUA	2010		2011		Urteko aldakuntza	
	Zenbatekoa	% banak. balio erantsiarekiko	Zenbatekoa	% banak. balio erantsiarekiko	Zenbatekoa	%
Balio erantsia	3.741	100,0	3.701	100,0	-40	-1,1
Langile gastuak	-2.389	-63,9	-2.399	-64,8	-10	0,4
Barne errendimendua	1.352	36,1	1.302	35,2	-50	-3,7
Finantza gastuak	-424	-11,3	-435	-11,8	-11	2,5
Cash-flowa	928	24,8	867	23,4	-61	-6,5
Amortizazioak	-582	-15,5	-524	-14,2	58	-9,9
Emaitza operatiboak	346	9,3	343	9,2	-3	-0,9
Zuzk., beste emaitzak eta zergak	-168	-4,5	-218	-5,9	-50	-29,8
Ekitaldiko emaitzak	178	4,8	125	3,3	-53	-29,8






3



**ANTOLAMENDUAREN  
EGITURA.  
ERAKUNDE SOZIALAK  
ETA ZUZENDARITZAKOAK**



#### Antolamenduaren egitura



Erakunde sozialak eta  
zuzendaritzakoak

## Batzorde Iraunkorra

### Lehendakaria

Agustin Markaide

### Lehendakariordea

Jose Miguel Lazkanotegi

### Kideak

Irene Alberdi

Joxean Alustiza

Jesus M. Astigarraga

Ane Beristain

Iñaki Durañona

Julian Errarte

Julio Gallastegi

Javier Goienetxea

Jon Igarza

Aitor Irure

Esther Korta

Antton Kortazar

Jose Luis Madariaga

Julen Madariaga

Jose Luis Perez

Jabier Retegi

M. Jose Uria

Mikel Uribetxebarria

Pedro Urteaga

### Idazkaria

Arantza Laskurain

### Aholkulari juridikoa

Zorione Arregi

## Kontseilu Orokorra

### Lehendakaria

Jose M. Aldecoa

### Kideak

Rafael Barrenechea

Manuel Beraza

Agustin Markaide

Iñaki Gabilondo

Txomin Garcia

Txema Gisasola

Jose Ramon Goikoetxea

Belen Kortabarria

Javier Mutuberria

Javier Sotil

Mikel Zabala

### Idazkaria

Arantza Laskurain

## Industria Kontseilua

### Lehendakaria

Jose M. Aldecoa

### Kideak

Jose Miguel Arregi

Angel Barandiaran

Rafael Barrenetxea

Manuel Beraza

Iñaki Gabilondo

Txema Gisasola

Jose Ramon Goikoetxea

Jose Luis Lizarbe

Javier Mutuberria

Iñaki Otaño


Juan Maria Palencia


Javier Sotil

Josu Ugarte

### Idazkaria

Francisco Azpiazu





**ENPRESEN  
ZERRENDA**

## 4 ENPRESEN ZERRENDA

### FINANTZA ARLOA

#### BANKA

##### CAJA LABORAL

Pº José Mª Arizmendiarieta, s/n  
20500 Mondragón (Gipuzkoa)  
Tel.: 34 943 719 500  
Fax: 34 943 719 778  
E-mail: [contactacon@cajalaboral.es](mailto:contactacon@cajalaboral.es)  
Web: [www.cajalaboral.es](http://www.cajalaboral.es)  
JARDUERA: Banka.

##### • CAJA LABORAL GESTIÓN SGIIC

Pº José Mª Arizmendiarieta, 5  
20500 Mondragón (Gipuzkoa)  
Tel.: 34 943 790 114  
Fax: 34 943 790 116  
Web: [www.cajalaboral.es](http://www.cajalaboral.es)  
JARDUERA: Inbertsio-fondoak kudeatzea.

##### • CAJA LABORAL PENSIONES, SGFP

Pº José Mª Arizmendiarieta, 5  
20500 Mondragón (Gipuzkoa)  
Tel.: 34 943 719 535  
Fax: 34 943 719 778  
Web: [www.cajalaboral.es](http://www.cajalaboral.es)  
JARDUERA: Pentsio fondoan kudeaketa.

##### • CAJA LABORAL EUSKADIKO KUTXA CARTERA

Pº José Mª Arizmendiarieta, 5  
20500 Mondragón (Gipuzkoa)  
Tel.: 34 943 719 500  
Fax: 34 943 710 778  
Web: [www.cajalaboral.es](http://www.cajalaboral.es)  
JARDUERA: Inbertsio fondoan kudeaketa.

#### ASEGURUAK

##### LAGUN ARO VIDA

Capuchinos de Basurto, 6-2º  
48013 Bilbao (Bizkaia)  
Tel.: 34 944 798 300  
Fax: 34 944 798 383  
Web: [www.seguros lagunaro.com](http://www.seguros lagunaro.com)  
JARDUERA: Bizi-aseguruak.

##### SEGUROS LAGUN ARO

Capuchinos de Basurto, 6-2º  
48013 Bilbao (Bizkaia)  
Tel.: 34 944 798 300  
Fax: 34 944 798 383  
Web: [www.seguros lagunaro.com](http://www.seguros lagunaro.com)  
JARDUERA: Aseguru Orokorrak.

#### GIZARTE AURREIKUSPENA

##### LAGUN-ARO, EPSV

Pº José Mª Arizmendiarieta, s/n  
20500 Mondragón (Gipuzkoa)  
Tel.: 34 943 790 100  
Fax: 34 943 793 531  
E-mail: [lagunaro@sarenet.es](mailto:lagunaro@sarenet.es)  
JARDUERA: Babes soziala kooperatibistei.

##### OSARTEN

Pº José Mª Arizmendiarieta, s/n  
20500 Mondragón (Gipuzkoa)  
Tel.: 34 943 790 100  
Fax: 34 943 798 080  
JARDUERA: Laneko arriskuen prebentziorako zerbitzu erkidetua.

### INDUSTRIA ARLOA

##### ABANTAIL

Polo Garaia, Goiru kalea, 7  
20500 Mondragón (Gipuzkoa)  
Tel.: 34 943 712 560  
Fax: 34 943 712 568  
Web: [www.abantail.com](http://www.abantail.com)  
E-mail: [contacto@abantail.com](mailto:contacto@abantail.com)  
JARDUERA: Enpresen Diseinu Egokitzaila optimizatzeke zerbitzu integrala.

##### ALECOPI

Loramendi, 11  
20500 Mondragón (Gipuzkoa)  
Tel.: 34 943 712 405  
Fax: 34 943 799 212  
E-mail: [alecop@alecop.es](mailto:alecop@alecop.es)  
Web: [www.alecop.es](http://www.alecop.es)  
JARDUERA: Instalazio elektriko aurrefabrikatuak. Hezkuntzako proiektuak eta baliabideak. Hezkuntzako eta prestakuntzako sistemak.

##### • ALECOPI FORMAÇÃO TÉCNICA E PROFISSIONAL.

Rua Orlando Gonçalves, 5 - 4º esq.  
2610-127 Buraca Amadora  
Portugal  
Tel.: 00-351-219862448  
Fax: 00-351-219862307

##### • ALECOPI ENSEIGNEMENT TECHNIQUE

38 Chemin Du Calice Bp 21.  
01121 Montluel Cedex Lyon  
France  
Tel.: 00-33472257122  
Fax: 00-3347225736.

##### • ALECOPI SUCURSAL COLOMBIA

Carrera 18, Nv8-40 Of. 701  
Bogotá  
Colombia  
Tel.: 00-571-5300714  
Fax: 00-571-6218312  
[www.alecop-colombia.com](http://www.alecop-colombia.com)

• **ALE COP DIDACTICA S.A. DE C.V.**

Av. Ejército Nacional, 678  
Col. Polanco Reforma Del Miguel Hidalgo.  
11550 México DF  
Tel.: 5255141160  
Fax: 5255142567

• **INSTITUT DES METIERS  
AUTOMOBILE KENITRA, S.A.**

21, Avenue Bin Elouidabe  
Apt. N° 6 Agdal  
Chez K2 Consulting Rabat  
Morocco

• **I HARDUN MULTIMEDIA**

Loramendi, 11  
20500 Mondragón (Gipuzkoa)  
Tel.: 34 943 791 807  
Fax: 34 943 711 755  
Web: www.ihardun.com  
E-mail: sarrera@ihardun.com  
**JARDUERA:** Eduki digitalak garatzea,  
prestakuntza, eta IKT aholkularitza.

• **M.L.S MANAGED LEARNING  
SOLUTIONS**

Goiru kalea, 1  
20500 Mondragón (Gipuzkoa)  
Tel.: 34 943 712 405  
Fax: 34 943 799 212

• **ALKARGO**

Aritz bidea, 83  
B° Atela, Aptdo. 102  
48100 Mungia (Bizkaia)  
Tel.: 34 946 740 004  
Fax: 34 946 741 700  
E-mail: alkargo@alkargo.com  
**JARDUERA:** Banaketa-  
transformadoreak. Potentzia  
ertaineko transformadoreak.  
Autotransformadoreak. Kapsuletan  
sartutako transformadore lehorrak.

• **AURRENAK**

Vitorialanda, 15  
Ali - Gobeo  
01010 Vitoria (Álava)  
Tel.: 34 945 244 850  
Fax: 34 945 246 912  
E-mail: ak@aurrenak.com  
**JARDUERA:** Automobilgintzaren  
merkatuan burdina eta aluminioa  
urtzeko teknologia desberdinetarako  
tresneria.

• **AURRENAK SERVICE SA de CV**

Avda. Siderúrgica, 2023  
Parque Industrial Saltillo-Ramos  
Ramos Arizpe-Coah;  
25900 México  
Tel.: 52 844 48 81 361  
Fax: 52 844 48 81 362  
E-mail: akmexico@aurrenak.com  
**JARDUERA:** Automozioaren merkatuan  
burdinaren eta aluminioaren  
fundiziorako teknologietarako  
tresneria.

**BATZ**

Torrea auzoa, 32  
48140 Igorre (Bizkaia)  
Tel.: 34 946 305 000  
Fax: 34 946 305 020  
E-mail: batzscoop@batz.es  
**JARDUERA:** Trokelak ekoiztea.  
Jasokuntza-sistemak tool kita barne  
izanik, balazta-sistemak, mihiztatutako  
pedalen modulua eta egitura-zatietako  
mekanismoak.

• **BATZ AUTOMOTIVE SYSTEMS  
KUNSHAN CORP. LTD.**

West of Huangpujiang Road  
Yanhu Industrial Zone,  
215341 Kunshan (Jiangsu Province)  
Republic of China  
Tel.: +86 0512 551 552 30  
Fax: +86 0512 551 552 31  
**JARDUERA:** Automobilgintzako  
sistemak eta moduluak.

• **BATZ CZECH, s.r.o.**

Ostravská 1671,  
739 11 Frydlant nad Ostravicí  
Czech Republic  
Tel.: +420 558 603 011  
Fax: +420 558 640 168  
**JARDUERA:** Automobilgintzako  
sistemak eta moduluak.

• **BATZ MEXICANA S.A. de C.V.**

Circuito de Exportación, 142  
Parque Industrial Tres Naciones  
Segunda Etapa  
78395 San Luis Potosí  
México  
Tel.: +52 444 499 9300  
Fax: +52 444 799 72 41  
**JARDUERA:** Automobilgintzako  
sistemak eta moduluak.

• **FPK DO BRASIL COMPONENTES  
AUTOMOTIVOS LTDA.**

Av. Leste, 3.200  
Campo Largo da Roseira  
São José dos Pinhais – PR  
Brazil CEP : 83090-470  
Tel. +55 41 2106-2300  
Fax +55 41 2106-2310  
**JARDUERA:** Egitura-osagaiak eta  
aerodinamikoak konpositean.

• **FPK LIGHTWEIGHT  
TECHNOLOGIES DEUTSCHLAND  
GMBH**

Lehmkuhlenweg, 77  
31224 Peine  
Germany  
Tel.: +49 5171 703 0  
Fax: +40 5171 703 299  
**JARDUERA:** Konpositez eginiko  
osagaiak eta egitura aerodinamikoak.

## 4 ENPRESEN ZERRENDA

### • FPK, S.COOP.

Polígono Ugaldeguren II, P-10 II  
48170 Zamudio (Bizkaia)

Tel.: 34 944 522 605

Fax: 34 944 522 156

E-mail: fpk@fpk.es

Web: www.fpk.es

**JARDUERA:** Automozioaren sektorearentzat egitura-osagaiak eta aerodinamikoak konpositean diseinatzea eta ekoiztea.

### • MB LUSITANA

Rua das Fontainhas

Casal da Lebre

2430-180 Marinha Grande

Tel.: 35 124 45 70 350

Fax: 35 124 45 70 351

**JARDUERA:** Automozioaren sektorearentzat trokelak ekoiztea eta doitzea.

### • MB SISTEMAS

Polígono Industrial Igeltzera

Igeltzera, 8

48610 Urduliz (Bizkaia)

Tel.: 34 944 030 626

Fax: 34 944 030 627

E-mail: comercial@mbistemas.es

**JARDUERA:** Mihizadura-sistemak eta txapasoldadura.

### • MB TOOLING S.A.

Parque empresarial Boroa, 2A - 2

48340 Amorebieta (Bizkaia)

Tel.: 34 946 309 900

Fax: 34 946 734 718

**JARDUERA:** Automozioaren sektorearentzat trokelak doitzea.

### • MB TOOLING RIOJA, S.L.

Polígono Industrial el Sequero

Avda. del Ebro, Parcela 170

26151 Arrubal (La Rioja)

48340 Amorebieta (Bizkaia)

Tel.: 34 941 486 448

Fax: 34 941 486 453

**JARDUERA:** Trokelen akabera eta presta jartzea eta aldaketak sartzea.

### BIURRARENA

Pol. Bidebitarte

Donostia Ibilbidea, 28. Apdo. 887

20014 Astigarraga (Gipuzkoa)

Tel.: 34 943 554 350

Fax: 34 943 555 360

E-mail: jlecheve@biurrarena.com

**JARDUERA:** Makineria: Herri-lanetako makineriaren komertzializazioa eta A.T.Z. Ingurumena: Sailkatu eta berreskuratzeko (ontzi arinak, RCD-ak, etxetresna elektrikoak eta beste teknologia batzuk) instalazioen eta lurpeko edukiontzien proiektua eta eraikuntza.

### CERAMAT

Asteasu Industrialdea A Gunea, 1 Pab.

20159 Asteasu (Gipuzkoa)

Tel.: 34 943 694 305

E-mail: home@ceramat.es

Web: www.ceramat.es

**JARDUERA:** Difusiozko gas-erregailuak.

### CIKAUTXO

B° Magdalena, 2 B

48710 Berriatua (Bizkaia)

Tel.: 34 946 133 000

Fax: 34 946 133 001

E-mail: cikautxo@cikautxo.es

**JARDUERA:** Kautxuzko piezak fluidoak bideratzeko, moteltzeko eta horien estankotasunerako eta babeserako.

### • CIKAUTXO BORJA

Polígono Barbalanca

50540 Borja (Zaragoza)

Tel.: 34 976 869 486

Fax: 34 976 866 005

**JARDUERA:** Fluidoak bideratzeko tutua.

### • CIKAUTXO CZ.

Letni, 3867

